



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

## **ZURE ZALANTZAZ ETA ARRAZOTIAZ BALIATZEKO ADOREA IZAN!**

**Pentsamendu kritikoaren eta Hezkidetzaren arteko harremana Haur  
Hezkuntzan**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**2020-2021 Ikasturtea**

*EGILEA: Gamazo Ansorena, Oihane*

*ZUZENDARIA: Zelaieta Anta, Edu*

## LABURPENA

Haur Hezkuntzan pentsamendu kritikoa eta hezkidetzak lantzeak duen garrantziaren eta eraginaren inguruko azterlan bat aurkeztuko da. Marko teorikoa izango da jorratuko dugun lehendabiziko puntua, besteak beste, pentsamendu kritikoa aztertuz. Modu berean, pentsamendu kritikoa oinarria izanik, beste kontzeptu batzuen azterketa ere egingo da, hala nola pentsamendu sortzailea, hezkidetzak, dramatizazioa eta jolasa. Horretaz gain, Nafarroako eta EAEko Haur Hezkuntzako Curriculuma ere aintzat hartuko ditugu. Atal praktikoa dagokionez, gaiaren inguruko galdetegi bat egin zaio Nafarroako eskola desberdinetako Haur Hezkuntzako irakasle talde bati. Galdetegian lortutako emaitzen arabera, aztertutako kontuaren gaineko ondorio nagusi batzuk atera dira. Alde horretatik, ondorio horiek gogoan, hobetzeko proposamenak aurkeztuko dira.

**Hitz gakoak:** Haur Hezkuntza, pentsamendu kritikoa, pentsamendu sortzailea, hezkidetzak, dramatizazioa eta jolasa.

## RESUMEN

Se presentará un estudio sobre la importancia e impacto de trabajar el pensamiento crítico y la coeducación en la Educación Infantil. El primer punto que abordaremos será el marco teórico, analizando, entre otros, el pensamiento crítico. Del mismo modo, sobre la base del pensamiento crítico, se realizará un análisis de otros conceptos como el pensamiento creativo, la coeducación, la dramatización y el juego. Además, se tendrá en cuenta el Currículum de Educación Infantil de Navarra y de la CAV. En cuanto al apartado práctico, se ha realizado un cuestionario sobre el tema a un grupo de profesores de Educación Infantil de diferentes escuelas –de diversos contextos socioculturales– de Navarra. En función de los resultados obtenidos en el cuestionario, se han extraído algunas conclusiones principales sobre la cuestión analizada. En este sentido, teniendo en cuenta dichas conclusiones, se presentarán propuestas de mejora.

**Palabras clave:** Educación Infantil, pensamiento crítico, pensamiento creativo, coeducación, dramatización y juego.

## ABSTRACT

We will present a study on the importance and impact of working on critical thinking and coeducation in Early Childhood Education. The first point to be addressed will be the theoretical framework, analysing, among others, critical thinking. Similarly, on the basis of critical thinking, we will analyse other concepts such as creative thinking, co-education, dramatisation and play. In addition, the Early Childhood Education Curriculum of Navarre and the Basque Autonomous Community will be taken into account. As far

as the practical section is concerned, a questionnaire on the subject was sent to a group of Early Childhood Education teachers from different schools in Navarre. On the basis of the results obtained in the questionnaire, some main conclusions have been drawn about the question analysed. In this sense, taking into account these conclusions, proposals for improvement will be presented.

**Key words:** Early Childhood Education, critical thinking, creative thinking, coeducation, drama and play.

## AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA .....                                  | 1  |
| 2. MARKO TEORIKOA.....  | 2  |
| 2.1. Pentsamendu kritikoa .....                                     | 2  |
| 2.1.1. Pentsamendu kritikoa Haur Hezkuntzan .....                   | 5  |
| 2.1.1.1. Ahalduntzea .....  | 6  |
| 2.1.1.2. Zalantza .....   | 8  |
| 2.1.1.3. Kuriositatea .....   | 8  |
| 2.1.1.4. Autonomia.....   | 9  |
| 2.2. Pentsamendu sortzailea .....                                   | 10 |
| 2.3. Genero ikuspegia eta Hezkidetza .....                          | 12 |
| 2.3.1. Generoa eta estereotipoak.....                               | 12 |
| 2.3.2. Hezkidetza .....   | 13 |
| 2.4. Dramatizazioaren bidezko adierazpena eta komunikazioa .....    | 14 |
| 2.5. Jolasa .....   | 15 |
| 2.6. Pentsamendu kritikoa Nafarroako eta EAeko curriculumetan ..... | 16 |
| 3. HELBURUAK .....  | 18 |
| 4. METODOA.....   | 19 |
| 5. EMAITZAK .....   | 22 |
| 6. ONDORIOAK .....  | 24 |
| 7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK .....                                     | 27 |
| 8. GrALAREN BALORAZIO PERTSONALA.....                               | 28 |
| 9. ERREFERENTZIAK .....   | 30 |
| ERANSKINAK  |    |

## **1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA**

Hurrek lehenengo sozializazioan, arau, debeku, pauta ezagutzen eta barneratzen hasten dira. Aldi berean, gizartean onartuak eta ondo ikusiak diren jarrerak bereganatzen eta euren pertsonalitatearen garapenean, izugarritzko pisua eta eragina dute (Espinosa, 2000).

Jaiotzen garenetik, gure identitatea bizitzen dugunaren arabera eraikitzen dugu. Gure ingurukoek eta gertakariak prozesu honetan eragin handia daukate, izan ere, guk errealitatea hautemateko eta interpretatzeko modua da, hots, identitatearen oinarria (Rocha, 2009).

Pentsamendu kritikoa, haurrak kanpoko input horietatik hain iragazkor ez izateko behar duten autonomia eta gutxieneko independentzia eskuratzeko oinarria da. Izan ere, hurrek pixkanaka-pixkanaka, gizarteak dituen jarrerak eta ideiak bereganatzen joaten dira, soilik ehuneko handi batek hori egiten duelako, aurretik ideia edo jarrera hori aztertu eta zalantzan jarri gabe. Joera honen kontrako antidoto hobereana, pentsamendu kritikoaren sustapena eta garapena da.

Haur Hezkuntza gure gizartearen oinarria izanda eta haur kritikoak hezi nahi baditugu, etapa hau nabarmentzea funtsezkoa da, Estatuan legez derrigorrezkoa ez izanagatik ere. Horretarako, haurren interesak kontuan hartu behar dira, gauza berriak ikasteko grina piztuz eta baliabide kreatiboak eskainiz. Hurrek esateko dutena entzunez eta errespetatuz, euren potentziala ikusiz eta haien ekintzak behatuz profesionalki jardutea proposatzen da (Fernandez eta Feliu, 2017).

Hausnartzeko gaitasuna ezinbestekoa da haurren garapen integralerako, auto-erregulaziorako gaitasuna eskuratu eta nortasuna eraikitze bidean, eta ezinbestekoa da, modu berean, norberaren sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez jabetzea (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Beraz, ezinbestekoa da eskoletan pentsamendu kritikoa sustatzea. Hurrek pentsamendua landuz gero, pentsatzen ikasiko baitute eta modu berean, komunikazio modu ezberdinak lantzen, pentsatzen duten hori adierazten ikasiko dute (Eusko Jaurlaritza, 2015). Modu honetan, hurrek errealitatea dena eta itxurakeria dena aztertze eta bereizteko, garrantzitsua eta ez dena behatzeko eta eurentzako kaltegarriak diren mezu horiek ezabatzeko gaitasuna bereganatzen joango dira eta pertsona orekatuak izateko aukera izango dute.

Pentsamendu kritikoa hezkuntza prozesu guztietako ardatz erreferentea izateko ordua da. Hala ere, ideia hauek aurrera eramateko, gaur egun hainbat arazorekin

topatzen gara. Alde batetik, helduon konfiantza eta sinesgarritasun eza haurren pentsatzeko gaitasunean eta bestetik, bizitzen ari garen indibidualismoaren puntu gorena (Ruiz, 2019).

Finean, helburua, haurrak era autonomoan eta errespetuan eta berdintasunean oinarrituta heztea eta hauek ez doktrinatzea da. Baina nola egin hori guztia era orekatu batean eta kalterik suertatu gabe?

Ondoren, Haur Hezkuntzan pentsamendu kritikoa, hezkidetzeta eta dramatizazioaren bidezko adierazpena eta komunikazioak, haurren pentsamenduan, identitatearen eraketan, sozializatzeko gaitasunean eta garapenean orokorrean duten eragina eta onurak aztertuko ditugu. Hots, nola pentsamendu kritikoa dramatizazioaren eskutik, Haur Hezkuntzan hezkidetzeta-proposamenak gauzatzeko orduan, proposamen horiek modu kritikoa eta gogoetatsuan eman eta landu daitezela lagundu dezake. Familia, eskola eta gizartea bezalako eragileen bidez, txiki-txikitatik ezartzen zaizkigun genero-estereotipoak suntsitzeko, edo behintzat, zalantzan jartzeko.

Aipatutako hiru kontzeptu hauek, nahiko ikusezinak izan dira. Egun, geroz eta garrantzia handiagoa ematen ari zaie hezkuntza arloan, eta gutxinaka eskolan lantzen diren arloak dira. Hala ere, oraindik gai hauen inguruan lan eta hausnarketa handiak egin behar dira.

## **2. MARKO TEORIKOA**

### **2.1. PENTSAMENDU KRITIKOA**

Pentsamendu kritikoa ez da kontzeptu berri bat inondik inora. Bere jatorria Greziakoa da: Sokrates, Platon, Kant eta Aristoteles. Hala ere, "pentsamendu kritikoa" kontzeptuaren aitzindaria Max Black da (1946), bere liburua horrela izendatu zuena.

*Pentsamendu* hitza latinetik dator "*pensare*" eta hausnartu, imajinatu, ikertu...esan nahi du. Bestetik *kritikoa*, grekotik dator "*kritikos*" eta ekintza edo gauza onak, gaiztakeriatik bereizten dituenari esan nahi du (Real Academia Española de la Lengua, 2019).

Kultura Europarrean Sokrates dugu aitzindari nagusia, eta bere pentsamendua Platonen elkarrizketetan jasota dago. Elkarrizketetan, dena zalantzan jartzen zuen eta besteei hausnartzeko galderak proposatzen zizkien.

Kantek erantzukizun intelektualaren eta arrazoiaren eraikuntzaren apustuan parte hartzen du, haurtzarotik pertsonak beren kabuz pentsa dezaten heztea eta prestatzea defendatzen baitu (Kant, 1989).

Kanten ustez, arrazoa epaitegia da, eta hark epaitzen du, eta horrek pentsamenduaren hobekuntzaren garrantzia nabarmentzen laguntzen digu, kritikatik arrazoimenera. Kritika horrek, Kanten bidean, printzipio unibertsalak ezartzera garamatza, eta horrek arrazoa jartzen du eta subjektuen ekintzak zuzentzen ditu; printzipio horiek pentsamenduaren mugimenduaren emaitza dira, judizioak eta jarduteko moduak sortzen dituzten funtsezko irizpideak, zentzuzko bizimoduak, arduratsuak eta, batez ere, garrantzitsuena, autonomia, non gure arrazoimenak berak ematen baitizkigu gure erregelak eta maximak; izan ere, Kanten etikan ez da onartzen gure portaera gure arrazoimenetik kanpo zuzentzen duen legerik, eta, horrela, nahimenaren printzipio autorregulatzailerak sustatzen da, erabat autonomia dena (Zapata, 2010)

Ikertzaile kognitiboek, curriculum-diseinatzaileek eta trebetasun kognitiboan irakasleek, Matthew Lipmanek, besteak beste, ikerketa-prozesu bati ekin diote, eskoletan eta unibertsitateetan ezagutza emateko moduari buruz, hezkuntza-helburuek porrot egiteko arrazoa aurkitu nahian, hezkuntza alferrikako ezagutzen transmisio huts bihurtzen da, eta hori, gainera, gero eta desinformatuagoa, desorientatuagoa, mentalki akritikoagoa eta, horregatik, ez hain demokratikoa den gizarte batean islatzen da (Zapata, 2010).

Gaia landu duten autore eta jakitun bezain beste definizio daude, baina beharbada, zehatzenetako bat Francis Baconek (1605) egindakoa izan daiteke: “Pentsamendu kritikoa, bilatzeko gogoia, zalantzatzeke pazientzia, meditatzeke afizioa, baieztatzeke makaltasuna, hausnartzeko gogoia, antolatzeke arreta eta itxurakeria guztienganako gorrotoa izatea da”.

Chrobak-ek, aldiz, egoera zehatz baten ebaluazio analitikoa dakarren pentsamenduaren prozesua dela pentsamendu kritikoa. Haren iritziko, kritikotasunez pentsatzeak jardura hobeak eta lorpen garrantzitsuagoak dakar, aldi berean sorkuntza sustatuz. Honek guztiak, arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen laguntzen du (Chrobak, 2017).

Pentsamenduaren garapenean orientabide eta estimulu egokiak emateko, garrantzitsua da haurra garapen kognitiboaren zein etapatan dagoen jakitea eta horretara egokitzea. Piagetentzat, izakiek askatasunez erabiltzen dute pentsatzeko gaitasuna, baina berak, euren garapenean prozesua azpimarratzen du. Izakiak pentsatzeko gaitasuna garatzen du bere baldintza biologiko eta historiko-kulturaletan oinarrituta (Piaget, 1966).

Horrek, Vygotskiren gogamenaren gizarte-eraketaren teoriara eramaten gaitu. Teoria horretan pentsamenduaren egituraketaz hitz egiten digu, gizarte-elementuekin

duen harremanetik abiatuta, oinarrira, hizkuntzarekin duen loturatik abiatuta, eta gure begien aurrean jartzen ditu pentsamendu hobea sortzeko kanpoko eta barneko gizarte-esparrutik landu daitezkeen funtsezko elementuak. Vygotskik eta Lipmanek interes hori partekatzen zuten, eta ohartzen ziren gure pentsamendua eta haien arteko harremanak bat datozela munduan esaten eta egiten dugunarekin; horregatik, Lipmanek, Vygotskiren proposamena bereziki interesatzen zitzaion, pentsamendua barneratuta dagoen jardura gisa ulertzeko, eta hortik pentsamenduaren goi-mailako forma baterantz lan egiteko aukera (Lipman-en pentsamendu kritikoa), komunitate edo talde sozial jakin baten barruan (Zapata, 2010).

Vygotskik dio (1993), gure pentsamenduen eraikuntza, gure eraikuntza mentalarena, batez ere kanpoko ingurunetik jasotzen dugun eragin indartsuan oinarritzen dela, eta horrekin erlazionatzeko dugun modurik osoena eta dinamikoena hizkuntzaren bidezkoa dela.

Richard Paulek eta Linda Elderrek (2003), *The Critical Thinking Organization*-eko ikertzaileentzat, pentsamendu kritikoa pentsamolde hori da –edozein gai, eduki edo arazori buruz–, non pentsalariak bere pentsamenduaren kalitatea hobetzen duen pentsatzeko ekintzaren berezko egiturak bereganatzean eta horiek estandar intelektualen pean jartzean.

Bi ikertzaile hauek, zazpi estandar intelektual unibertsal zehaztu zituzten, zeinak arrazoiketa bat ebaluatzeko aldi oro, pentsamenduan aplikatu beharra dago. Estandarrak, ondorengoak dira: argitasuna, egitasuna, zehaztasuna, egokitasuna, sakontasuna, zabaltasuna eta logika (Paul eta Elder, 2003).

Pentsatzea eta arrazoitzea ez da gauza bera. Arrazoitzearen arazoa, edo arrazoimena jakintzaren organo bakarra dela pentsatzea, testuinguruaz eta egoeraz kanpo hausnartzen egotea da, helburuak eta errealitatea idealizatuz. Pentsatzeak, arrazoiketa errealitate zehatz batean, egoera zehatzekin, pertsona zehatzekin eta arazo zehatzekin kokatzea dakar. Lehenik eta behin, egoera erreal hauek ulertzen eta hauek ez idealizatzen eta bigarrenik, testuinguru zehatz hauetara egokitzen diren konponbide errealak porturatzen saiatuz (Dewey, 1910).

Behar-beharrezkoa da pentsamendu kritikoa gauzatzea, masetan mugitzen ez diren haurrak hezteko eta bere kabuz pentsatzeko eta euren ideiak balioztatzeko. Kritikotasuna, ezinbesteko tresna da bizitzan zehar ezartzeko eta oinarrizko hezkuntzatik landu beharko litzateke (Zúñiga, 2014).



Vygotskik (1993) dioen bezala, gure pentsamenduen eraikuntza gehienbat, kanpotik jasotzen dugun eragin indartsuan oinarritzen da. Beraz, kritikotasunez pentsatzen ikasi behar da, jarduera hobeak eta lorpen garrantzitsuagoak izateko eta sorkuntza sustatzeko. Honek guztiak, arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen laguntzen du (Chrobak, 2017), hots, pentsalariak bere pentsamenduaren kalitatea hobetzen du (Paulek eta Elderrek, 2003).

### **2.1.1. PENTSAMENDU KRITIKOA HAUR HEZKUNTZAN**

Ruizek (2019) *El arte de pensar para niños* liburuan esaten duen moduan, pentsamendu kritikoa prozesu iraunkorra eta jarraitua da. Ez da momentu edo egun batean, gai zehatz baten inguruan egiten den hausnarketa puntual bat. Baizik eta, izateko eta bizitzeko modu bat. Ohitura bat, behin barmeratuta dutenean, modu natural batez aurrera eramateko gai izatea, inoren laguntzarik gabe.

Baina, ondo pentsatzen erakutsi daiteke? Haurrek beharrezko gaitasunak dituzte kritikotasunez pentsatzeko?

Haurrak haien kabuz pentsatzea lortzen badugu, mentalki indartsua den haur bat hezten egongo gara, berezko pentsamenduarekin eta kanpoko eraginak behatzen eta aztertzen dituenak (Ruiz, 2019).

Egun bizirik jarraitzen duten garai hartako teoria nagusien aurrean, haurrak 10 edo 11 urte bete aurretik pentsamendu konplexuak izateko gai ez zirela uste zutela, Lipman filosofoak, trebetasun hori askoz lehenago eskuratzen zutela uste zuen. Aldi berean, garaiko hezkuntza sistemaren kontra zegoen, ikaskuntza memoristikoa sustatzen zuena, haurren arrazoinamendu eta gaitasun logikoak ahazten zuena. Berak argi zeukan haurrek txikitatik pentsamendu abstraktuak izateko gaitasunak zituztela. Horretarako, filosofiara jo zuen, gauzen eta gertakarien zergatia aztertzerako (Zapata, 2010).

Haurrei pentsamendu kritiko bat izaten erakusteko, ezinbestekoa da, geure irizpideak ez inposatzea eta haiek autonomiaz hautatzen uztea. Garrantzitsua dena eta bigarren mailakoa dena bereizten irakatsiz, alde onak eta txarrak behatzen eta galderak egitera bultzatzea oso garrantzitsua da. Horretarako, kuriositatea erion inguruan heztea ezinbestekoa da. Pentsamendu kritikoa sustatzeko, haurren interesa pizten duten gaiak hautatu behar ditugu, eztabaida edo elkarrizketa sortzeko eta galdera, erantzun eta ideia anitzak sortzen diren testuinguruan hezteko.

*Solo es el principio* filmean ageri den bezala, Haur Hezkuntzako irakaslea haurren beharretatik eta interesetatik abiatzen da filosofatzen hasteko. Maitasunari,

askatasunari, autoritateari, diferentziari eta adimenari buruz, besteak beste, libreki eta elkarrekin eztabaidatzen hasten dira (Pozzi eta Barougier, 2010). Ildo beretik, GrupIREF elkarteak sortutako Filosofia 3/18 curriculumak, horrelako helburua du. Ikasleei beren kabuz hobeto pentsatzen laguntzeko sortuta dago, irakaskuntzaren ardatza den filosofiatik abiatuta (GrupIREF, 2020). Esan beharra dago arestiko proiektuak Europako Kontseiluaren babesa duela.

Modu honetan, haien konfiantza eta autoestimua garatzen joango da eta honekin batera, berezko izaera eta nortasunak sortzen eta erabakiak hartzerako orduan arduratsu jokatzeko ikasten joango dira (Alonso, 2018).

Hausnarketak eta pentsamendu kritikoa, haurren interesetik eta hauek bizi eta hauei eragiten dizkieten egoeretatik eta gaietatik sortu behar dira (indibidualak, familiarrak edota sozialak). Haurrek egindako galderetatik hasi eta ez hainbeste helduok planteatzen eta egiten ditugun galderetatik (Ruiz, 2019). Tomi Ungerer artista, Ruizek proposatzen duenaren erreferentetzat har genezake. *Así es la vida* (2016) liburuan, paternalismorik eta gehiegizko babesik gabe, haurrek egindako galderari erantzun filosofikoak ematen dizkio:

Hugo, 3 años, *¿Qué es el ingenio? ¿La electricidad de mi cuerpo?* Sí, si lo conectas con una bombilla. Porque el ingenio es una fuente de luz que ilumina la inteligencia. También es la prueba de que estamos vivos y coleando (57orr)

Halaber, pentsalari kritikoak sortzeko, curriculumak kontuan hartzea ezinbestekoa da. Bertan, haurrak hezteko orientabideak zehaztuta baitaude (Eusko jaurlaritzak, 2015) eta kreatibitatearekin, komunikazioarekin eta pentsamendu kritikorekin estu lotutako gaitasunak garatzen dira, haurren garapen psikosozialerako oso garrantzitsuak direnak (Álvarez-Uria et al., 2015).

### **2.1.1.1 Ahalduntzea**

Botere betetako mundu honetan, gizarteko gizabanakoen artean sor daitezkeen desberdintasunen aurrean kontzientzia kritikoz jokatu behar dugu, ekitatean oinarrituta. Autoestimua handia duen pertsona batek, beraz, ahalduntze-maila handiagoa duenak, arrakasta izateko aukera handiagoak ditu. Pertsona horrek erabakiak bere kabuz eta baita talde baten barruan ere hartzen ditu, bere garapena helburu batzuen inguruan zuzentzen du, eta bere parte-hartze eta ideien exekuzio maila altua da. Ni-a aztertu ondoren, ahalduntze-eskailera horretan aurrera egin dezakegu. Boterea geure baitan aurkitzen dugunean, jauzi handia egin dezakegu botere komunera, hau da, botere-kate horretan aurrera egin dezakegu proposatutako helburuak lortzeko, ahalduntze

kolektiboan sartuz eta banakoa alde batera utziz. Ahalduntze horrek berekin dakar jarrerren, balioen eta arauen ikuspegi komuna izatea, erronka eta helburu zehatzak dituzten pertsonen batasuna lortzea, eta mobilizazioa eta kontzientzia hartzea inplikatzeko, bai banaka, bai taldean (De Miguel et al., 2016).

Marquezek (2005) haur-eskolan egin duen Haur Hezkuntzako ikasgelako botereari buruzko azterlan batek, eskolan nagusi den sozializazio-estiloa autoritarioa, zurruna eta heteronoma dela adierazten du, non autoritatea irakasleek erabili behar duten balio bat den, ikasleen errespetua sortu eta mantentzeko, non boterearen erabileran oinarritutako harremana legitimatzen den. Horrela, hezkuntzak, beste aurreiritzi batzuen artean, zuzena edo okerra, ona edo txarra denaren gaineko inposizioak ekartzen ditu, hausnarketa kritikorik ez duten gizabanakoen eraketa eraginez, hauen judizioak alienatuak izango direlarik, ia inposatutako kontzeptuoen pean.

Horregatik pentsatzen da ekintza pedagogiko askatzaile bat premiazkoa dela gizarte-premiekin lerrokatutako curriculum-praktikak berritzeko funtsezko elementu gisa. Girouxen arabera (2006), ikasketa-planek lotura organikoa izan beharko lukete ikasleek kanpoko munduan izango dituzten arazoekin, horrela gizartearen garapenarekin konprometitutako ezagutza-moduak garatzeko. Hezkuntzari buruzko ikuspegi emantzipatzaile hori ahalduntzeko hezkuntzan oinarritzen da, eta Shor (1992) autorearen arabera, aldaketa pertsonal eta sozialerako pedagogia kritiko-demokratikoan oinarritzen da, gizabanako aktibo, kritiko, gogoetatsu, kontestatariorik eta sozial baten garapenean eta prestakuntzan zentratuta. Horrela, pedagogia askatzaile baten aldeko apustua egiten da, kontzientzia kritikoa eta soziala sustatuz, norbanakoari trebetasunak eta ezagutzak garatzen joateko aukera emango diona eta jarrera kontestatariorik eta propositibo bat izaten lagunduko duena. Elementu horiekin, norbanakoaren eta taldearen eraldaketa ekarriko duten aldaketa-ekintzak askatuko, problematizatuko, zalantzan jarriko eta proposatuko dira.

Ikuspegi horretatik, hezkuntzak protagonismoa ezagutzaren eraikuntzan eta kritikaren garapenean ez ezik, esku-hartze sozialean ere ahalbidetzen duten prozesuetan oinarritu behar du; izan ere, horren ondorioz, beharrezkoa da ikasgelan komunikazio-trebetasunen garapena sustatzea, gogoeta eginez egituratutako pentsamendu autonomoen garapena, kritikarako eta elkarrizketarako prestutasunarekin (Torres, 2009).

### **2.1.1.2. Zalantza**

Pentsamendu kritikoa oso bultzatzaile garrantzitsua da giza arrazaren aurrerabidean. Kontua ez da zalantza egiten irakastea, baizik eta ulertzea eskolan irakasten diguten guztia, gure ustez gertatzen dena dela, eta gehienetan hori, ez dela absolutua. Ezagutzak urratsez urrats egiten du bira (Estrella, 2013).

Beraz, Ruizek (2018) dioen bezala, eskoletan eta edozein hezkuntza-prozesutan, zalantzaren ariketa osasuntsua erakutsiko digun irakasgai bat egon beharko litzateke. Pentsa liteke ez digutela zalantzan jartzen irakatsi behar, modu autonomoan ikasten delako, inork irakatsi gabe, baina errealitate urrun. Zalantza egiten ikastea, noiz zalantza egin jakitea, zalantza batzuekin bizitzea eta, hala eta guztiz ere, pertsona orekatuak izatea funtsezkoa da gure garapenerako.

Zaila da zalantza gizarteko sektore guztiek eskatzen diguten erreakzio biszeralaren aurretik jartzea, nahiz eta egun, presente dugun errealitate bat izan. Izan ere, zalantzan jartzeak, gelditzea, hausnartzea, ikertzea denbora eskaintzea... esan nahi du eta distantziak hartzea dakar. Eta distantzia hartzea lan zaila da, hain zuzen ere, sententzioen eta esperientzien mundu bat saltzen ari zaizkigulako, gizarte arrazional eta gogoetatsu baten gainetik (Ruiz, 2018).

### **2.1.1.3. Kuriositatea**

Jakin-mina umeengan modu naturalean sortzen den fenomeno bat da, barne-bultzada bat, berria eta ezezaguna dena esploratu eta esperimendu nahi duen jokabide ludiko bat. Interesarekin eta motibazio intrintsekoarekin lotuta dago. Jakin-mina honela definitzen dugu: berritasuna eta aukera desafiatazaileak nahita bilatzea. Adimenaren dimentsio garrantzitsua da, jakiteko nahiaren eta ikasteko gogoaren iturri nagusia baita. Haurrak bere ingurunea ulertu ahal izan dezan, bere eskema mentalak egiten hasten da eta bere ezagutza eraikitzen, eskolan dagoen bitartean, eremu horretan bizi izan dituen esperientzien bidez, hainbat aukera ematen zaizkio haur gogoetatsua izaten hasteko (Jimenez, 2013)

Ortizek dio (2015) jaiotzetik ezinbestekoa dela esperimendua eta ingurunearen ulermena estimulatzea, honek, edukiak barneratzen laguntzen duelako. Haurra errealitatearekin kontaktuan dagoen bitartean, inguruaren zenbait aspektu ezagutzen eta ulertzen laguntzen dio. Gainera, jarrera positiboak ere sortzen dira (interesa, curiositatea, errespetua...).

Honen ildotik, ikasle batek arreta jartzeko ez da nahikoa arreta jartzea eskatzearekin; hau da, egin behar dena da ikaslearengan emozioak eta interesak piztea.

Horregatik, garrantzitsua da azaltzen ari den gaiaren inguruan ikasleen kuriositatea eta interesa pizten duten metodoak eta baliabideak sortzea (Mora, 2013).

Irakasle gisa, kontuan hartu behar ditugu haurren komentarioak eta aberastu egin behar ditugu, beren ingurune naturala ezagutzera bideratutako jarduerak diseinatu behar ditugu, behaketa-, ikerketa- eta hausnarketa-aukerak emateko, haurrek beren ikaskuntzak eraiki ditzaten (Jimenez, 2013).

#### **2.1.1.4. Autonomia**

Kantek (1984) pertsona ilustratua izatea adimen-gutxiengoa uztea zela esaten zuen, eta pertsona asko bertan babesten direla bizitzan zehar. Zer esan nahi zuen honekin? Beren inguruan gertatzen denagatik (ohiturak, modak...) beren burua eramaten uzten duten pertsonenganako keza da, gertatzen zaienari buruz hausnartu gabe. Adingabe intelektuala izateak esan nahi du besteen pentsamenduak eta ideiak norberarenak direla onartzea iragazkirik pasatu gabe, guretzat komenigarriak diren edo zuzenak edo okerrak diren jakiteko.

Haurrak helduak izatea nahi badugu, txikitatik beren kabuz erabakiak hartzera ohitu behar ditugu. Bere adineko arazoekin bat datozen erabakiak. Norberak pentsatzea irakats daitekeen zerbait da, eta dagoen ikaskuntzarik onena praktikaren bidez egiten da (Ruiz, 2018).

Eriksonen konfiantzaren eraikuntza aholkatzen zuen lehen urtean eta autonomia zentzua sustatzen zuen haurren bizitzako bigarren eta hirugarren urteetan. Diziiplina positiboa zigorrik gabe sartzan da jokoan. Diziiplina positiboak autonomia irakasten die haurrei, eta haurren garapenerako egokia denaren irakaskuntzan eta ulermenean oinarritzen da, haien eboluzio-adinaren arabera (Roldan, 2016).

Planteamendu horren aurrean, ez da nahikoa izango protagonismoa *per se* eragiten duten agertokiak sortzea; aitzitik, ikasgelan espazioak sustatu beharko dira ikaslea bere protagonismoan kontziente izan dadin, bere ahalmenez kontziente den ekintza bat gauzatu, non bere burua onartzen duen eta, ondorioz, bere ikaskuntza-prozesuaren konkista ez ezik, bere buruaren konkista adierazten duten aldaketak ere hausnartu, problematizatu eta eragiteko gai den. Giro onean erosotasunera joateko tentazioa gainditzea. Bere potentzialtasuna eta ikasle gisa duen botere-zentzua aitortzea da, akademikoki edo sozialki konpromisoz moldatzen lagunduko diona, eta horrek bere gain hartzen dituen erabaki eta ekintzen erantzule egiten du, bere prestakuntza pertsonal eta profesionalaren alde edo kaltetan (Torres, 2009).

## 2.2. PENTSAMENDU SORTZAILEA

Pentsamendu sortzaileari buruzko lehenengo ikerketak 50eko hamarkadan agertu ziren eta garapenari buruzko interesa agerikoa bazen ere, irakaskuntzan ez zuen eragin handirik izan 70eko hamarkadara arte. Garai horretako pedagogiak beste helburu batzuk zituen: buruz ikasteko nahia, azterketetan ahalik eta emaitzarik altuenak lortu, arau zehatz batzuei jarraitu, eta arau horietatik urruntzen zen guztiak oker ematen zuen. Irakaslearen aginkeriazko jarrerak eta memorizazioaren alde egoteak, ikasleek sortzaile den guztiaren aurrean atzera egiteak ekarriko du (Lasagabaster, 2015).

Egun, nagusiki, konstruktibismoan oinarritutako hezkuntza eredua gauzatzen ari dira eskoletan. Hitzak oinarrian duen ideia islatzen du: haurrari bere ikaskuntza, bere pentsamendua eraikitzen uztea. Horretarako, informazioa bilatzeko eta ikertzeko askatasun-eskolan giro bat sortu behar da, gidari batekin, maisu-maistrarekin, beharrezko materialak emango dizkiona, laguntza emango diona eta bilaketa orientatuko diona, ez da nahikoa egiten uztea (Cemades, 2018). Ikasleei era kritikoa pentsatzen eta, gauzak onartu baino lehen, hauek aztertzen irakasten ari zaie haurrei. Gaur egungo pedagogiek duten helburuetako bat, ikaslea bere erantzunak aurkitzera bultzatzen laguntzea da, maisu-maistrek irtenbide zuzen eta zehatzak ez ematen saiatzea (Lasagabaster, 2015).

Guilford-ek (1962), gaiari eragin handiena izan duen ikertzaileak, zenbait jarraibide proposatzen ditu pentsamendu sortzailearen garapena guztizkoa izan dadin: ikasleen ez-ohiko erantzunen aurrean errespetu osoa erakustea, ikasleei ikusaraztea beraien ideiak baliozkoak direla, berezko ikaskuntzak behar dituen aukerak eskaintzea, konfiantza azalduz eta ikasteko garaiez eta ebaluaziorik gabeko ariketaz baliatzea.

Sormenaren garapenarekin batera, kontuan hartu beharreko alderdirik garrantzitsuenetako bat norberaren kontzeptuaren garapena da, haurra oso txikia denetik eratzen dena, ingurunearekin dituen askotariko esperientzien bidez. Oro har, gaiari buruzko egileek bi aldagai horien artean nolabaiteko lotura dagoela onartzen dute. Horri dagokionez, Guilford-ek (1983) autokontzeptuaren eta sormenaren arteko erlazio hori babesten du, aldagai horietako zein dagoen bestearen aurretik zehaztu gabe. Horrek esan nahi du autokontzeptu positiboa izateak gizakiaren potentzial sortzaile sortzen laguntzen duela, baita subjektuak ingurunearekin esperimendu eta lorpen sortzaileak lortzen dituen heinean ere, bere autokontzeptu positiboa indartu egingo dela (Franco, 2006).

Beste hainbat eremutan gertatzen den bezala, haurren lehenengo urteak oso garrantzitsuak dira pentsamendu sortzailearen garapenerako, oso garai egokia baita, umeen jakin-nahia dela kausa (Lasagabaster, 2015).

Eskola-giroan, haurrak jendearekin harremanetan jartzen ikasten du, eta, horrela, eredu esanguratsuak bereganatzen ditu. Eredu horiek zenbait jarraibide emango dituzte, garapen pertsonalean lagun diezaioten. Hori dela eta, erakunde hori arduratu daiteke haurra motibatzeaz, munduari aurre egiten lagunduko dioten tresna berritzaileak eta printzipio etikoak emanez. Gure ustez, sormena eskola-proiektu guztietan egon beharko lirakeen funtsezko trebetasunetako bat da, haurrari ondorio berriak ateratzeko eta arazoak modu originalean konpontzeko aukera ematen baitio. Haurren sormena sustatzeko, hainbat faktore hartu behar dira kontuan, hala nola gizarte-giroa, kontzeptu-, hizkuntza-, motibazio- eta ikasle-prozesuak (Carevic Johnson, 2018).

Pentsamendu kritikoa lortzeko bidean, Reggio Emilia ikuspuntua ezinbestekoa da, izan ere, hausnarketa bultzatuz, emozioen adierazpena garatuz, artearen eta sormenaren bidez, pentsamendu kritikoa eta pentsamendu zientifikoa lortzen saiatzen dira. Horrez gain, komunikazioa, talde lana, balioak eta elkarrizketa bultzatzen dute, etorkizunari begira, gizarte libre eta demokratiko bat sortzeko asmoz. Horrenbestez, haur sortzaileak heztea eta kritikotasuna bultzatzea helburu dute. Jolasa, haurraren 100 hizkuntzetako bat bezala hartzen dute, kritikotasuna lantzeko baliabide paregabea izanik (Fernandez eta Feliu, 2017).

Reggio Emiliako bereizgarritasun nabarmenetakoa, hezkuntza aktiboa da. Hezkuntza aktiboak, haurraren garapen emozional, sozial, moral eta intelektuala sustatzea du helburu. Bertan, proiektuetan oinarritutako metodologia erabiltzen dute. Heziketa metodo honen euskarria, erlazioak dira, bakoitzaren trebetasunak eta baliabideak aintzat hartuz. Honekin batera, gelan galderak egiten eta eztabaidak edota elkarrizketak edukitzen dituzte, pentsamendu kritikoa sustatuz (Agut eta Hernando, 2015).

Loris Malaguzzik haurraren 100 lengoiaiez hitz egiten du, ez bakarrik lengoiaia plastikoaz, musikariaz, matematikoaz, baizik eta lengoaien integrazioaz eta erlazioaz. Haur bat marrazten ari denean, ez da plastika bakarrik egiten ari, agian punteatzen ari da eta, arrastoak uzteaz gain, soinu erritmikoa sortzen ari da. Agian giza irudi bat marrazten ari da, eta esperientzia bat du gizakiaren identitatearekin (Malaguzzi, 2005).

## **2.3. GENERO IKUSPEGIA ETA HEZKIDETZA**

### **2.3.1. GENEROA ETA ESTEREOTIPOAK**

Estereotipoak jarduteko eredu zuzenak dira, rol jakin bati lotuak, gizarte batean eta une jakin batean. Beraz, genero-estereotipoak modu artifizialean gizonei eta emakumei aplikatzen zaizkien sinesmen eta jokabide kolektiboen multzoa dira. Sexu bakoitzak rol desberdina bete behar du, bi aldeek betetzea espero diren betebeharrak eta itxaropenak definitzen dituena. Genero bakoitzerako ezarritako portaerak, jarrerak eta balio sozialak dira (Aguado eta Alfonso, 2012).

Generoa, multzo sozial baten praktika, sinesmena, irudikapena eta agindua da, maskulinoa eta femeninoa bereizten dituena eta prozesu sozial baten bidez gertatzen dena. Pertsonak, jaiotzen direnetik, hainbat gizarte-eragilek ezarritako rolak eta estereotipoak bereganatzen ditu. Eskola, gizarte-eragile garrantzitsua da prozesu horretan, haurra bere genero-nortasuna garatzen hasten den adinean presente baitago. Beraz, irakasleek zeregin oso garrantzitsua dute, genero-rolak eta -estereotipoak transmititzen laguntzen dituzten eragileetako bat baitira. Horretarako, garrantzitsua da irakasleek prestakuntza ona izatea, duten funtsezko eginkizunaz jabetu ahal izateko eta, horrela, haurrengan ondorio negatiboak saihesteko (Bermejo, 2020).

Jaiotzen garenetik, gizartetik datozen hainbat ideiak eta ohiturak modu inkontziente batean barneratzen dira eta aldi berean, identitate pertsonala eraiki eta genero identitatea garatzen joaten da. Genero identitatearen eraikuntzan, gizarte eragileek, kulturek, ohitura eta jarrerak eragin handia daukate. Haurtzaroan, gizartearekin lotzen gaituena familia eta eskola dira. Bi horiek, erreferentziazko gizarte eragileak dira. Ondorioz, bertan bizitako esperientzietatik garrantzia handia du norberaren identitatearen eraikuntzan. Eta zer esanik ez, honi sexuaren arabera txikitatik egiten zaigun bereizketa gehitzen badiogu. Sexuaren arabera, pertsonen jarrera emakumeen eta gizonen artean bereizten da, horrek, genero identitatean eragina duelarik (Espinosa, 2000).

Genero-identitatea gizon edo emakume gisa autoklasifikatzea da, kulturalki gizon edo emakume gisa ulertzen dena oinarri hartuta (López, 1988) Genero-identitatea eraikitzekeo prozesua banaketa barruan gertatzen da, baina rolak, estereotipoak eta jokabideak ikasteko elkarrekintzan garatzen da (Barbera, 1998).

Psikologia kognitibotik, taldekako esleipenaren garapenean hiru etapa daudela defendatu da. Kohlbergen arabera (1966), eta Piageten estadioei jarraituz (1966), honako hauek dira: etiketatzea, egonkortasuna eta genero-konstantzia. Lehenengo



etapan, norbera eta gainerakoak bi taldetan kategorizatzen dira: gizonak eta emakumeak. Ondoren, haurrak ulertzen du kategoria hori mantendu egiten dela, azaleko aldaketak gorabehera, hala nola arropak edo apaingarriak (Garcia-Leiva, 2005).

«Ni»a, Stipek, Gralinski eta Koopen (1990) esanetan, ez da egun batetik bestera eraikitzen, hiru etapatik pasatzen da, normalean guztiz osatu arte: lehenengoa *nia* ezagutzea, geroago deskribapena eta, azkenik, autoebaluazioarekin estu lotutako erantzun emozionalak. Erabateko kontzientzia geroago agertzen da, helduen erreakzioak dira umeak bere jokabidea ezkutatu nahi izatearen edo gaizki jokatzeko ekiditearen ondorioa, besteek behatzen dutenean edo arreta deitzen diotenean. Benítez eta Fernándezek (2010) dioten bezala, haurrek txikitatik kanpo atributuen arabera umeak bere burua neska edo mutiltzat hartuko du (Goñi et al., 2018).

### **2.3.2. HEZKIDETZA**

Hezkidetzak hezkuntza ez-sexistan oinarritzen da: haurrak berdintasunean heztea, pertsona gisa gara daitezen eta sexuagatiko diskriminazioa saihesteko. Hezkidetzak guztion ahalegina izan behar du: familia, eskola, komunikabideak, etab (Aguado eta Alfonso, 2012).

Hortaz gain, hezkidetzak berdintasunezko hezkuntza batean ere oinarritzen da, generoen artean bereizten ez duen hezkuntza batean. Hezkidetzak-eskolaren eredu bat da, eta helburu nagusia genero-estereotipoak, desberdintasun-egoerak eta kultura-hierarkia sexistak ezabatuz heztea da. Helburua da bi sexuei aukera berdina ematea eta diskriminazio mota oro saihestea. Gizartean pentsatzeko eta jarduteko modua aldatzea oso zaila bada ere, hezkidetzak estereotipoak desagerrarazi nahi ditu eskoletan, hasteko leku egokitzat jotzen baita: orain haurrak direnak, hemendik urte batzuetara, helduak izango dira, erabateko berdintasunez pentsatzeko eta balio horiek transmititzeko gai izango direnak (Roure, 2012).

Beraz, hezkidetzak duen helburu nagusia, norberaren bizi-proiektua aukeratzea, askatasunean eta aukera-aniztasunean oinarrituta, genero-baldintzatzaile gabe, desberdintasunak identifikatzen ikasiz, horien aurka borrokatuz eta beren kulturaren, erlijioaren, gizarte-klasearen, egoera funtzionalean eta abarretan berdintasunerako eskubidea erabiliz (SKOLAE, 2017).

Hezkidetzak modu egokian garatzeko, gure buruarekiko eta gure inguruan dauden pertsonen keinu eta uste okerrekin, kritikoagoak izan behar gara. Bidegabekoa den edo gurekin bat ez datorren zerbait entzuten badugu isilik ez geratu eta gure iritzia eman behar dugu. Inguratzen gaituenarekin, era berean, geure buruarekin kritikoak bagara eta

pixkanaka bidegabekeriei aurre egiten badiegu gizartea ere aurrera egingo du (Alfonso, 2016).

Aurretik aipatu bezala, pertsonak bere eremu sozialaren arabera heziak izaten dira batez ere, inguratzen duten faktore sozialen emaitza, inguruan duen kulturaren emaitza. Taldearen eragina kolektibo guztietan mantentzen da, baita arau sozialetatik ihes egin nahi dutenen artean ere. Prozesu horretan, hezkuntzaren lana oso garrantzitsua da, hezkuntzaren bidez txertatzen baitzaizkio gizabanakoari ohiturak, arauak eta gizartearen balioak (Muñoz, 2009).

## **2.4. DRAMATIZAZIOAREN BIDEZKO ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA**

Teruelen (2016) aburuz, jarduera dramatikoak, adierazpen eta komunikazio kodeen prozesu orohartzaille nahastua da, bertan bakoitzak bere burua eta ingurune soziala eta kulturala ulertzeko bidea ematen da. Jarduera dramatikoak adierazpenari estu lotuta dagoenez, honen funtzio nagusia, haurrak euren buruan konfiantza gehiago izatea eta komunikatzeko gaitasuna garatzea da. Hala ere, alfabetatze estetikoak baita ere lantzen du, batez ere, emozioak, kultura, pedagogia eta historia, kritikotasuna, sormena eta harremanak garatuz.

Arteei dagokien eremuan, antzerkia eta dramatizazioa aukera ezin hobea izan daitezke, esan bezala, pertsonaren bizipenen eta emozioen munduan sartzeko, eta norbera osoki gara dadin laguntzeko. Dramatizazioa baloreetan hezteko baita trebetasun sozialak lantzeko tresna indartsu gisa ageri da, bere harremanezko izaera nabarmena dela eta (Zelaieta eta Camino, 2015).

Herranz Aragonesesek (2004) gorputzari garrantzia ematen dio. Berak, gorputz adierazpena, garapen soziala, kognitiboa, linguistikoa, motorra eta afektiboa garatzeko oinarria dela baieztatzen du. Beraz, garrantzitsua da hurrei gorputzaren bitartez adierazteko baliabidea eta gaitasuna erakustea. Modu honetan, haien sentimenduak eta emozioak adierazteko aukera izango dute eta aldi berean haien gorputza aurkitzeko, ezagutzeko eta erabiltzeko desioz baliatuz, besteekin komunikatu ahalko dira.

Bizi garen kulturaren, norberaren identitatea bilatzeko edo sortzeko gorputza oinarrizkoa da. Modu horretan, feminitatea eta maskulinitatea gorputzarekin erlazionatzen da. Beraz, gorputza ezaugarri sozialen eramailea da, ideia kulturalak eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunak osatuz (Butler, 2001).

Bestalde, hezkuntza artistikoa, sormena eta pentsamendu kritikoa lantzeko posibilitate handiak dituen arloa da. Askotan hezkuntza bisuala eta plastikoa beste arlo

batzuen menpe edo zerbitzuan erabiltzen da eta horretaz gain, curriculumeko arte ikasgaia aurrera eramateko eta honek dituen helburuak betetzeko erabili beharko genuke (Gutierrez, 2002).

Arte-hezkuntzaren bidez, pertsona independente, aske eta sortzaileen prestakuntzan eta eraikuntzan funtsezko diziplinatza jotzen dena; pertsona horien gaitasunek, irudien ekoizpena ez ezik, pertsona toleranteak eta enpatikoak eraikitzeke prestakuntza ere bame hartzen dute, eta fobiarik eta gorrotorik gabeko gizarte osasuntsu batean bizitzeko beharrezkoak diren alderdiak azpimarratu nahi ditugu (Moreno, 2018).

Egunero irudi asko kontsumitzen ditugu, eta, horregatik, haurrak horretarako prestatu behar dugu, bai irudi horiek sortzeko, bai interpretatzen jakiteko. Haurrei prestakuntza eman behar diegu, kontzienteki eta kritikoki hautemateko. Arrazoi horiek direla eta, ikusmen-hezkuntzak elkarren artean toleranteagoak diren eta kontsumo masifikatuaren aurrean hobeto prestatuta dauden pertsonak trebatzen lagun dezake, hau da, besteen interesengatik hain konbentziturik ez dagoen nortasuna duten pertsona kritikoagoak eta sortzaileagoak. Horregatik, artea, sorkuntza-espazio eta errealitate berriekin esperimentatzeko leku gisa, hausnarketarako eta aldaketarako tresna egokia da (Moreno, 2018).

Egun, gero eta teknologia gehiago dago, eta hau gero eta onartuagoa da. Gertatzen ari diren aldaketek, hezkuntza arloan eragin handia dute. Hezkuntzaren erronketatik nagusienetako bat ikasleak aldaketa horietarako prestatzea izan behar da.

IKTak hezkuntzan funtzio asko betetzen ditu, adibidez, gizarteari egokitzea, alfabetatze digitala baimentzea, eten digitala ekiditea, inklusio digitala bermatzea eta hezkuntza eredua berritzea, hauen erabilera guztiz onuragarria bilakatuz (López de Arana, 2009).

## **2.5. JOLASA**

Ruiz de Velasco eta Abadek (2011), eta Álvarez-Uria, Tresserras, Zelaieta eta Vizcarrak (2015), haurren osasunean eta ikaskuntzan jolasak dakartzan onurak azpimarratzen dituzte. Jolasak, izugarritzko oreka emozional eta energetikoa lortzeko tresna da, baita, gaitasun intelektuala, soziala eta sormena lantzeko (Freire, 2011).

Jolasa ere, estereotipoak bereganatzen dituen bidea da. Jolas sinbolikoa adierazgarria da 3 eta 6 urte bitarteko haurrengan, eta honek, paper garrantzitsua betetzen du ereduaren imitazioan. Haurrek egunero bizitzen dituzten komunikazioko eta harremanetako eszenak erreproduzitzen dituzte, pertsona helduek bizitzan betetzen

dituzten rol sozialak erreproduzitzen. Modu honetan, sexu bakoitzari ezarritako rola modu naturalean eta espontaneoan ikasten dituzte (Aguado eta Alfonso, 2012).

Jolasa espazio publikoan ekintza-eremu bat bezala aurkezten da, kolektiboarekin lotzen dena eta errealitate paraleloen eraikuntza ulertzea ahalbidetzen diguna, eta, bere arauetatik egiten duenez, gure ikuspegia leuntzen duten aurrez ezarritako balio-judizioak une batez alde batera uzteko aukera ematen digu (Cabanellas eta Eslava, 2005). Hiri ludikoa, beraz, izateko eta egoteko (bizitzeko) leku bat da, eta herritarren irudimenetik eta sormenetik aktibatzen da eguneroko topaketan, errealitateen etengabeko truke gisa (Abad, 2011).

Jolasa da umearen ikaskuntzaren garapenaren oinarria. Haurrak bere ingurua behatzen du, bere gaitasunen arabera bereganatzen du, eta jolasaren bidez behatutakoa interpretatzen eta egokitzen du. Baina ez da nahikoa jolasten uztea edo jolas kantitateak ematea. Beharrezkoa da haurra ikertzera, imajinatzerara eta manipulatzera bultzatuko duen giroa sortzea, bere erantzunak emateko aukera emango diona, non helduak orientatuko duen haurraren ideiak kontuan hartuta; beraz, bere irizpidea aldatzeko gai izan behar du, taldearen edo norbanakoaren beharretara egokituta, malgua izan behar du eta ez autoritarioa, behar den informazioa ezagutu behar du, ez aldebakarrez transmititzeko, baizik eta haurrari laguntzeko, ikerketan etekin handiagoa ateratzeko behar den materiala lortzea (Cemades, 2018).

## **2.6. PENTSAMENDU KRITIKOA NAFARROAKO ETA EAEKO CURRÍCULUMETAN**

Eskolak haurrengan eragin handia dauka eta ikasle bakoitzari maila desberdinetan eragiten dio. Eraginetako bat curriculum esplizituak eskaintzen dituen ezaugarriak dira, hots, helburuak, kompetentziak, edukiak eta ebaluazio irizpideak. Modu beran, irakaskuntzan planifikatzen ez diren beste ezaugarri batzuk irakasten dira esplizituak ez direnak eta modu inkontziente batean agertzen direnak (Santos, 2002). Ezaugarri horiek, curriculum ezkutuaren barnean agertzen dira eta curriculum ezkutuak daukan eragina, askotan, curriculum esplizitua daukana baino askoz ere handiagoa da (Bermejo, 2020).

Hezkuntza-curriculuma, curriculum integratua, globala eta arlo espezifiko zein zeharkakoa delako nabarmendu beharko lirateke, hezkuntza-praktikaren eta ikasleen bizitzako etapa edo zikloaren erreferentzietan oinarrituta eta inguruko elementuak ahaztu gabe (García, 1996).

Etapako curriculum esplizituari begira, EAeko eta Nafarroako curriculumak aztertuko ditut. Nahiz eta lana bere osotasunean pentsamendu kritikoaren eta hezkidetzaren arteko loturan oinarritu, kasu honetan pentsamendu kritikoaren azterketari garrantzia handiagoa emango diot, hau baita lanaren ardatz nagusia eta, Haur Hezkuntzari dagokionez, artean ere ezezagunagoa dena.

Bi curriculumetan, etapako gaitasunak aztertuz gero, ondorengo biak dira gaiarekin estu lotuak daudenak eta lanean zehar landuko direnak: *ikasten eta pentsatzen ikastea* eta *komunikatzen ikastea*. Hurrek pentsamendua landuz gero, pentsatzen ikasiko baitute eta modu berean, komunikazio modu ezberdinak lantzen, pentsatzen duten hori adierazten ikasiko dute (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Gaitasun indibidualen garapenak eta inguruarekiko nahiz beste pertsonetikiko interakzioek pentsamendua garatzeko bidea ematen diete, pentsatzen eta ikasten irakasten diete: pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea, arazoak ebaztea, baliabide kognitiboak erabiltzea, eta abar (Nafarroako Foru Dekretua, 2007).

Era berean, Haur Hezkuntzako etapan, haurrak jaiotzetik burutzen ari diren esperientziak eta irudikatze moduak zabaldu egiten dira. Komunikazioa lantzeak, mezuak hartzea, interpretatzea eta sortzeko gaitasunak sustatzea dakar; modu horretan, hobetu egiten baitira munduaren ulertze maila (pentsamendu ulerkorra) eta modu originalean, irudimentsuan eta sortzailean adierazteko gaitasuna (pentsamendu sortzailea), baita pentsamendu kritikoa ere (Nafarroako Foru Dekretua, 2007).

Haur Hezkuntzaren helburua, ikaskuntza esanguratsuak egiteko testuinguruak ziurtatzea da, baita hurrei ikasten ikasteko beharrezko prozedurak eskuratzen laguntzea ere. Helburu hori betetzeko, hurrek prozedura horiek ikasteari ekin behar diote, hala nola; iturri anitzeko informazioa bilatu, hautatu, gorde eta berreskuratze beharrezakoa dakarten egoerak; informazioa alderatu, sailkatu, antolatu eta buruz ikasteko beharrezakoa dakarten egoerak, pentsamendu ulerkorra; informazioa ulertzeko beharrezakoa dakarten egoerak, pentsamendu kritikoa eta ideiak sortzeko beharrezakoa dakarten egoerak, pentsamendu sortzailea (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Haurrak gutxika, barneko eta kanpoko munduak bereizten joango da, eta garapen pertsonalaren dimentsio anitzak sortzen lagundu behar dio helduak; esate baterako, hitzeko eta hitzik gabeko hizkuntzak, ikasteko prozesuak eta estilo kognitibo propioak, gizarte jokaera eta jokaera morala, motibazioa, gorputz-irudia, emozioak, autoestimua eta autonomia (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Ahozko lengoaiak garrantzia handia du, ziklo honetan hasten baita modu sistematiko batez hizkuntzaren garapena, ikasleen komunikaziorako gaitasunak

garatzeko era ematen duten testuinguru anitzen bidez. Eta ez ditugu beste hizkuntza motak ahaztu behar, hala nola; gorputzarena, artistikoa, ikus-entzunezkoa eta matematikoa (Nafarroako Foru Dekretua, 2007).

### **3. HELBURUAK**

Gaur egun, eskura dugun informazio guztiarekin, garrantzitsua da gaitasun kritikoa izatea informazio hori guztia zalantzan jartzeko eta horrekin zer egin jakiteko edota hausnartzeko. Autonomiaz jokatzuz eta iritzi propioak garatuz, identitate propioa eraiki dezagun.

Lan honen helburu nagusia hau da: kritikoa izatea zen den argitzea eta horren eta Haur Hezkuntzaren arteko lotura egitea. Horrez gain, beste xede garrantzitsu bat hau da: pentsamendu kritikoa eta hezkidetzaren arteko lotura ikustea eta honen garrantziaz jabetzea, dramatizazioa aintzat harturik nahiz Nafarroako eta EAEko Curriculuma kontuan izanik.

Bestalde, beste helburu batzuk ere lortu nahi dira. Horien artean, pentsamendu kritikoa kontzeptua noraino menperatuta dugun jakitea eta Haur Hezkuntzako irakasleek, pentsamendu kritikoaren, sortzailearen, hezkidetzaren eta dramatizazioaren artean zelako lotura egiten duten jakitea. Gaur egun, kontzeptu horien esanahia eta hauen arteko lotura zein den jakitea garrantzitsua da, bai pertsona kritikoak hezteko, bai gizartean dagoen genero desberdintasuna ulertzeko eta kontzientzia hartzeko.

Horrez gain, etorkizun batean irakasle bezala, pentsamendu kritikoa eta hezkidetzaren modu bateratu batean lantzeko balio izatea ere bada lan honek duen beste helburu pertsonal-profesionala. Haur Hezkuntzako haurrek pentsatzen ikasteko eta komunikatzen ikasteko gaitasuna garatzeko, ondorengo konpetentziak eskuratuz:

- Gauzak zalantzan jartzen ikastea
- Autonomiaz eta ahalduntzez jarduten hastea
- Genero estereotipoak identifikatzen hastea eta hauen inguruan hausnartzea
- Kuriositatea pedagogikoki sustatzea
- Komunikatzeko forma desberdinak praktikatzea

#### **4. METODOA**

Azterlanaren metodoa, gaiaren inguruko datuak biltzean eta horiek interpretatzean datza. Horretarako, galdetegi bat sortu eta bidali zaie Haur Hezkuntzako hainbat irakasleri. Galdetegiak atal desberdinak ditu (ikus eranskin 1): hasierako agurra, azalpen labur bat, irakasleen inguruko datuak biltzeko galdetegia, gaiaren inguruko 9 item eta bestelako iruzkinen atala.

Diseinua irekia eta malgua izanen da. Datu-bilketarako teknikiei dagokienez, hainbat aurki ditzakegu, hala nola behaketa kualitatiboak, elkarrizketak, eztabaida-taldeak, landa-oharrak, dokumentuak, argazkiak... (Santiago, Jimenez eta Lukas, 2018). Ikerketa-prozesu honetan datuak biltzeko erabili den tresna, esan bezala, neuk egindako galdetegi bat izan da. Galdetegiak aukera ematen du neurtu nahi nituen aldagaiei buruzko datuak biltzeko prozesua estandarizatzeko eta integratzeko, aldagai horiek aukera emango baitiote ikasi nahi duen biztanleriak gaur egun duen egoera ezagutzeko (Aguilar Gavira eta Barroso Osuna, 2015). Honela defini dezakegu: "teknika egituratu bat, elkarrizketatu batek neurtu beharreko aldagai bati edo gehiagori buruz erantzun behar dituen ahozko edo idatzizko galdera batzuen bidez informazioa azkar eta ugari biltzea ahalbidetzen duena" (Albert, 2007, 115. or., hemen aipatua: Aguilar Gavira eta Barroso Osuna, 2015).

Lan hau aurrera eramateko, tresna metodologiko mistoa erabili da. Galdetegia oinarri gisa hartuz eta analisi kualitatiboa eginez, hau da, metodo ezberdinak konbinatuz. Ikerketa-prozesuan teknika, prozedura edo datu kuantitatibo eta kualitatiboak nahastuz. Nahasketa hau aldi berean edo momentu desberdinetan gerta daiteke, eta bi metodoak garrantzi desberdinekoak edo berekoak izan daitezke (Santiago, Jimenez eta Lukas, 2018).

Galdetegia egiteko, ikerketa lan honen helburuak kontuan hartu dira eta *Google Drive*ko inkestak egiteko aplikazioa erabili da. Galdetegiak 13 galdera ditu guztira, eta bai erantzun itxiko baita irekiko galderak aurki daitezke.

Ikerketa lan honen analisi nagusia egiteko erabilitako metodologia kualitatiboa da; izan ere, Denzinen eta Lincolnen hitzetan (1994), ikertzaile kualitatiboek egoera naturalak ikertzen dituzte, fenomenoak pertsonen ematen dieten esanahiaren arabera interpretatzen edo zentzua ematen saiatuz. Helburu nagusia, hezkuntzaren esparruan parte hartzen duten kideen esanahietan oinarrituz, hezkuntza gertakarien ulermena eta interpretazioa egitea da.

Galdetegia, ikastetxe desberdinetako 20 irakasleri egin zaie, hain zuzen ere, Iruñeko Mendigoiti Ikastetxeko, Ezkaba ikastetxeko, Aurrerabiako Paz De Ziganako ikastolako,

Erro eskolako eta Kastexon Ikastetxeko irakasleei. Esan beharra dago hautatutako eskolek ezaugarri pedagogiko, soziolinguistiko, geografiko... oso desberdinak dituztela.

## **BERRIEMAILEN PROFILA**

Generoari dagokionez, laginaren %85 emakumeak izan direla esan beharra dago, gizonezkoak aldiz, laginaren % 13. Ez da irakasle ez-binarioirik egon (ikus eranskin 2).

Adinari erreferentzia eginez, 20-30 eta 30-40 adin-tarteko irakasleak izan dira gehiengoak erantzuten, 20-30 adin-tartekoak %40 izan dira eta 30-40 urte- bitartekoak beste %40. Beste guztiak, 40-50 adin tarteko irakasleak izan dira (ikus eranskin 3).

Partaide gehienek 5-10 urte daramatzate hezkuntza arloan lan egiten. Horregatik, esan dezakegu berriemaile gehienak denbora gutxi daramatela irakasle lanean (ikus eranskin 4).

Bukatzeko, ikasketei erreferentzia eginez, %100ek unibertsitateko ikasketak burutu dituzte (ikus eranskin 5).

## **IKASTETXEEN DATU ESANGURATSUAK**

### **❖ Mendigoiti Ikastetxea**

Mendigoiti, Iruñeko ikastetxe publikoa da. Bertan, HHko 3 urtetik LHko 12 urte bitarteko ikasleak hezi egiten dira. Mendigoiti hezkuntza bizi eta aktiboarekin konprometitutako eskola da, curriculum edukiak lantzeko eta oinarrizko gaitasunak behar bezala garatzen direla ziurtatzeko bidea direnak: Montessori garapen-materialak; ikasgelen diseinua ikaskuntza-giroetan; proiektuetan oinarritutako ikaskuntza; tailerrak; nahitaezko edo arlo anitzeko zeregin dibertsifikatuak; autoerregulazioa eta autonomia lanean; lan kooperatiboa; adin desberdinetako talde malguak eta hezkuntza bizi eta aktiboaren gainerako baliabide pedagogikoak. Neurozientziaren ekarpenetan oinarrituta eta Diziplina Positiboaren programarekin lan egiten duten.

### **❖ Ezkaba Ikastetxea**

Ezkaba Ikastetxea Iruñe ondoko Antsoain herrian kokatuta dago, eta hezkuntza integrala eta gizartean bizitzeko behar diren konpetentzia zein bizikidetzarako balioak eskaintzen dituen euskal eskola publikoa da. Jendarteari irekia eta herrian uztartutako eskola ere bada, jendarteak planteatzen dituen erronkei egokituko dena. Ikasleen artean



euskararen erabilera bultzatzen dute, norbere buruarekiko, besteekiko eta inguruarekiko errespetua landuz eta bizikidetzaren positiboa sustatuz. Eleaniztasunerantz bidea jorratzeko asmo adierazia du eta IKTak oinarritzko tresna izatea eguneroko lanean.

#### ❖ **Paz de Ziganda ikastola**

Paz De Ziganda ikastola, familien hezkuntza kooperatiba euskalduna da, Atarrabian errotua eta Iruñerria zabalik. Aldi berean Ikastolen Elkarteko kideak dira; hortaz, gizarte ekimenez sortutako eta irabazi asmorik gabeko erakunde bat da. Halaber, euskara eta euskal kulturaren bultzatzaileak dira, euskara ardatz duen proiektu eleanitza sustatuz. Etengabeko izaera berritzailean murgilduta eta aniztasuna eskola aberasten duen balorea dela sinetsiz. Eskolako xede nagusia, pertsonak osotasunean bizitzarako heztea da, ikasleak baino pertsonak ikuspegi integral batean hezten dituzte, bere hiru esparru nagusietan: gizabanako gisa, gizarteko kide bezala eta izadiaren partaide den aldetik, etorkizunean autonomoak, sortzaileak, eleaniztunak, kompetenteak, lagunkideak, ingurumenerako errespetudunak eta gizartearekin konprometituak izan daitezten.

#### ❖ **Erroko Eskola**

Erroko eskola landa eremuko eskola txikia da eta, Iruñetik aparteago, Erroibarren kokatuta dago. Euskal eskola publikoa da eta jendarteari irekia eta herrian uztartutako eskola, baita ikasleen artean euskara bultzatzen duena. Eskola osoan 3 gela daude, HHko bat, LH 1, 2 eta 3. mailako beste bat eta LH 4,5 eta 6. mailako beste bat. Oso eskola txikia da eta bailarako beste eskolekin harreman estua dute. Metodologiari dagokionez, Reggio Emilia eta Argiaren pedagogia dira nabarmentzen direnak.

#### ❖ **Castejon 2 de Mayo Ikastetxea**

2 de Mayo Ikastetxe publikoa, Iruñetik urrun samar, Nafarroako Erriberan kokatuta dago, Castejon herrian hain zuzen ere. Egun, biztanleriaren ehuneko handi bat etorkinak dira eta hori eskolan islatzen da. Izan ere, egoera nahiko berria da eta aurretik eskolan maila bakoitzeko gela bakarra zegoen. Gaur egun berriz, maila bakoitzeko hiru gela. Bestalde, kulturari dagokionez nahiko anitza da eta horrek eskola aberasten du. Duela bi urte arte eskolak zeukan eredu bakarra A zen eta orain aldiz, D eredu gehitu dute. Metodologiari dagokionez, proiektuekin lan egiten dute.

## 5. EMAITZAK


Ondoren, galdetegian lortutako datuen emaitzak azalduko dira, hots, irakasleen erantzunak.

Lehenik eta behin, galdera ireki bat egin zaie, pentsamendu kritikoaren inguruko definizio labur bat egiteko aukera emanez. Behin definizioa zehaztuta, irakasleei eskatu zaie baloratzeko ea uste duten pentsamendu kritikoa lantzen dela eta zer garrantzi duen haientzat. Ondoren, lan honetan ikertu ditugun gaien artean irakasleek egiten duten harremana ikusi nahi izan da, hala nola, gai nagusiak, pentsamendu kritikoa eta hezkidetzeta, pentsamendu sortzailea eta dramatizazioa. Azkenik, jakin nahi izan dugu ea beren ibilbide akademikoan pentsamendu kritikoari eta hezkidetzari buruzko prestakuntza jaso duen.

Jarraian agertuko ditugu galdetegian jasotako emaitza nagusiak.

- ❖ **Zure ustez, zer da pentsamendu kritikoa?** Galdetegiaren lehendabiziko galderak, erantzun anitzak izan ditu. Hala ere, antzeko ideiak adierazten dituzte berriemaileek, “zalantza”, “hausnarketa” eta “iritzi propioa” hitz gakoak izanez (ikus eranskin 6).
- ❖ **HHn pentsamendu kritikoa lantzen dela uste duzu?** Eskuratutako datuetan oinarrituz, orokorrean irakasle gehienek HHn pentsamendu kritikoa lantzen dela uste dute. Zehatz adierazteko, 20 irakasleetatik 17-k nahiko lantzen dela uste dute. Beste 3 irakaslek zeozer lantzen dela pentsatzen dute (ikus 1.grafikoa).


HHn pentsamendu kritikoa lantzen dela uste duzu?  
20 respuestas



1. Grafikoa: HHn pentsamendu kritikoaren lanketa

- ❖ **Eta zuk, garrantzitsu ikusten duzu pentsamendu kritikoa HHn lantzea? Noiz-nola?** Berriemaile guztiek, pentsamendu kritikoa HHn lantzearen garrantzia azpimarratu dute. Eskolan uneoro landuz, haurrei galderak eginez, haurrek galderak egiten, euren ideiak eta iritziak ontzat hartuz, esperimentazioaren bitartez... (ikus eranskin 7).


- ❖ **Pentsamendu kritikoaren eta hezkidetzaren artean loturarik ikusten al duzu?** Berriemaileek pentsamendu kritikoaren eta hezkidetzaren artean lotura ikusten dutela esan dezakegu, emaitzak kontuan hartuz, irakasleen % 95ek oso nota altua eman dute (ikus 2. grafikoa).



2. Grafikoa: pentsamendu kritikoaren eta hezkidetzaren arteko lotura

- ❖ **Pentsamendu kritikoak hezkidetzak lantzeko balio duela uste duzu? Eta hezkidetzak pentsamendu kritikoak lantzeko?** Partaideen erantzunak kontuan hartuz, guztiek (%100), pentsamendu kritikoak hezkidetzak lantzeko eta hezkidetzak pentsamendu kritikoak lantzeko balio dutela uste dute (ikus 3. grafikoa).


Pentsamendu kritikoak hezkidetzak lantzeko balio duela uste duzu? Eta hezkidetzak pentsamendu kritikoak lantzeko?  
20 erantzunak



3. Grafikoa: pentsamendu kritikoaren hezkidetzak lantzeko balioa eta alderantziz

- ❖ **Pentsamendu kritikoaren eta sortzailearen artean loturarik ikusten duzu?** Berriemaileen gehienek aburuz, pentsamendu kritikoaren eta sortzailearen artean erlazio zuzena dago. Galdera erantzun dutenek 5/4 eta 5/5 baloratu dute (ikus 4. grafikoa).


Pentsamendu kritikoa eta sortzailearen artean loturarik ikusten al duzu?  
20 respuestas



4. Grafikoa: pentsamendu kritikoa eta sortzailearen arteko lotura

- ❖ **Dramatizazioa, hezkidetzaren modu kritikoa eta sortzaile batez lantzeko baliagarria dela uste duzu?** Berriemaile gehienek, dramatizazioa hezkidetzaren modu kritikoa eta sortzaile batez lantzeko baliabide interesgarri bat bezala ikusten dute. Izan ere, 20 berriemailetatik 18-k 5/4 eta 5/5 hautatu dute, hau da, % 90 batek. Aldiz, %10 ez du dramatizazioa hain baliagarri ikusten (ikus 5. grafikoa).


Dramatizazioa, hezkidetzaren modu kritikoa eta sortzaile batez lantzeko baliagarria dela uste duzu?  
20 respuestas



5. Grafikoa: dramatizazioa, pentsamendu kritikoa eta hezkidetzaren arteko harremana

- ❖ **Zure ikasketak kontuan izanik, pentsamendu kritikoa eta hezkidetzaren modu kritikoa direla uste duzu? Baietz izatekotan, bi hauek modu bateratu batean landu direla uste duzu?** Datuak kontuan hartuz, ikus daitezke erantzun oso desberdinak daudela; lehenengo galderari dagokionez, 20 partaidetatik 11k ez omen dute unibertsitateko ikasketetan pentsamendu kritikoa eta hezkidetzaren oinarritutako prestakuntzarik jaso. Formakuntza jaso dutenetatik 4k, bi gaien lanketa modu ez bateratu batean jaso dutela esan dute. Aldiz, beste 5 pertsonak gaiak modu bateratu batez landu dutela aipatu dute (ikus 6. grafikoa).

Zure ikasketak kontuan izanik, pentsamendu kritikoa eta hezkidetzaz landu direla uste duzu? Baietz izatekotan, bi hauek modu bateratu batean landu direla uste duzu?



6. Grafikoa: berriemaileen ikasketak

## 6. ONDORIOAK

Galdetegiaren bitartez lortutako emaitzak kontuan izanik, eta literatura zientifikoa aintzat hartuz, hainbat ondorio emango ditugu jarraian.

Esan beharra dago hautatutako eskolek ezaugarri pedagogiko, soziolinguistiko, geografiko eta abar oso desberdinak dituztela. Desberdintasun hauek galdetegi aberastu dutelakoan gaude. Izan ere, dibertsitate honek egiteko modu oso desberdinak azalera ditzu eta, segun eta zein metodologia erabiltzen den, non kokatuta dagoen eskola edota egoera soziokulturala zein den, garrantzia handiago edo gutxiago emango zaio gaiari eta modu batez edo bestez jorratuko da.

Bestalde, laginaren ezaugarri nagusietako bat, nolabaiteko gaztetasun profesionala da. Berriemaileen erdiak, 5 urte baino gutxiago daramatza hezkuntzan lanean eta soilik laurden batek 15 urte baino gehiago. Hortaz, guk egindako azterlanean profil horren aztamarik ere sumatzen dela pentsatzekoa da.

Hasteko, berriemailek pentsamendu kritikoa inguruan emandako definizioaz arituko naiz. Orokorrean, denek ideia bera partekatzen dutela esan genezake, nahiz eta definizio bakoitza desberdina izan den, oinarria edo azpimarratzeko hitz gakoak erantzun gehienetan errepikatu baitira. Alde horretatik, “zalantza” izan da gehien errepikatu den hitza. Gauzak zalantzan jartzearekin lotzen dute maisu-maistra gehienek; hala ere, hausnarketa eta iritzi propioa izatearekin ere erlazionatu dute askok.

Bestalde, irakasle gehienek HHn pentsamendu kritikoa lantzen dela adierazi dute. Horrek duen garrantzia azpimarratuz eta uneoro landu beharreko gaia dela esanez. Izan ere, hezkuntzaren funtzio nagusia pertsona libre eta autonomoak egitea da, bizi diren errealitatea kritikoki aztertze gai direnak eta haien eraldaketan parte hartzen dutenak (Freire, 1970 ;Valdivia, 2010).

Aurrekoarekin lotuta, irakasle guztiak bat datoz pentsamendu kritikoa lantzearen garrantziaz. Etengabe landu beharreko zerbait dela uste dute. Haurrei erantzuna zuzenean eman aurretik, irakasleak munduaren inguruan duen ikuspegia alde batera utzi behar duela eta ikasleei galderak egiten utzi behar diela azalduz. Ruizek (2019) azaltzen duen moduan, haurrak haien kabuz pentsatzea lortzen badugu, mentalki (eta emozionalki?) indartsua den haur bat hezten egongo gara, berezko pentsamenduarekin eta kanpoko eraginak behatzen eta aztertzen dituenak.

Hezkidetzari dagokionez, parte hartu duten irakasleek argi utzi dute pentsamendu kritikoa eta hezkidetzaren artean lotura handia dagoela. Ildo beretik, pentsamendu kritikoak hezkidetzak lantzeko balio duela eta hezkidetzak pentsamendu kritikoa lantzeko ere. Izan ere, hezkidetzak duen helburu nagusia, norberaren bizi-proiektua aukeratzea, askatasunean eta aukera-aniztasunean oinarrituta, genero-baldintzatzailearik gabe, desberdintasunak identifikatzen ikasiz, horien aurka borrokatuz eta beren kulturari, erlijioari, gizarte-klaseari, egoera funtzionalean eta abarretan berdintasunerako eskubidea erabiliz (SKOLAE, 2017). Hau da, gure gizarteratze prozesuan gizarte-eragile desberdinak transmititutako balio eta jokabideak zalantzan jartzea, ikuspegi kritiko batez begiratzea eta hausnartzea eta bizi proiektu eta ikuspegi propioak eraikitzea (Espinosa, 2000).

Horrez gain, pentsamendu sortzailearekiko erlazioari buruzko erantzunak ere oso positiboak izan dira. Guztiek pentsamendu kritikoa eta sortzailearen arteko erlazioa ikusten baitute. Izan ere, ezinbestekoa da bi pentsamendu hauen arteko lotura esplizitua egitea. Marko teorikoan aipatu bezala, Lasagabasterrek (2015) aipatzen duen moduan, beste hainbat eremutan gertatzen den moduan, haurren lehenengo urteak oso garrantzitsuak dira pentsamendu sortzailearen garapenerako, oso garai egokia baita, umeen jakin-nahia dela kausa. Pentsamendu sortzailea garatzeko bidean, ikasleen ez-ohiko erantzunen aurrean errespetu osoa erakustea ezinbestekoa da, ikasleei ikusarazi behar zaie beraien ideiak baliozkoak direla, berezko ikaskuntzak behar dituen aukerak eskaini behar zaizkie, konfiantza azalduz eta ikasteko garaiez eta ebaluaziorik gabeko ariketaz baliatzea (Guilford, 1962).

Beste ondorioetako bat da, berriemaile gehienek dramatizazioa hezkidetzak modu kritiko eta sortzaile batez lantzeko baliagarria dela uste dutela. Gutxi batzuek, aldiz, ez dute dramatizazioa baliabidetzat hartzen edo ez dakite zer nolako onurak dituen. Marko teorikoan aipatu bezala, jarduera dramatikoak, adierazpen eta komunikazio kodeen prozesu orohartzaile nahastua da, bertan bakoitzak bere burua eta ingurune soziala eta kulturala ulertzeko bidea ematen da. Honen funtzio nagusia, haurrak euren

buruan konfiantza gehiago izatea eta komunikatzeko gaitasuna garatzea da. Batez ere, emozioak, kultura, pedagogia eta historia, kritikotasuna, sormena eta harremanak garatuz (Teruelen, 2016). Dramatizazioa balioetan hezteko baita trebetasun sozialak lantzeko tresna indartsu gisa ageri da, bere harremanezko izaera nabarmena dela eta (Zelaieta eta Camino, 2015).

Bukatzeko, berriemaileen ikasketak kontuan hartzen baditugu, erdia pasatuak pentsamendu kritikoa eta hezkidetzara bere ibilbide akademikoan zehar landu dutela esan da eta ia beste erdiak ezetz. Baiezkoa eman duten horien artean, bi gai hauen lanketa bateratua eman dela azpimarratu dute. Alde horretatik, agerian gelditu da irakasle gehienek ez dutela generoaren inguruko formakuntzarik jaso. Esan genezake galdera guztien artean erantzun ezberdin gehien jaso dituen dela.

Beraz, izugarritzko garrantzia dauka irakasleek bi gai hauetan formakuntza on bat izateak eta euren jarreraz eta izan dezaketen eragin negatiboaz kontzientzia hartzeak. Izan ere, irakasleak genero estereotipoen eta rolen transmititzaileak dira eta, ikasleen erreferenteak izanik, genero identitatearen garapenean modu negatibo batean eragin dezakete (Anguita eta Torrego, 2009).

## **7. HOBETZEKO PROPOSAMENA**

Gradu Amaierako Lan baten ezaugarriak eta izaera kontuan hartuta, asmo handikoa litzateke lan horrek mugarik ez duela pentsatzea; are gehiago, Gradu Amaierako Lana gai jakin batean sakontzeko akuilu izan daitekeen abiapuntu gisa ulertu dezakegu. Beraz, ezinbestekoa da azterlan honetan zehar topatu diren oztopoak adieraztea eta, modu berean, oztopo hauei zer konponbide eman zaien azaltzea. Halaber, lana hobetzeko proposamenak ere izango dira ikusgai.

Hasteko, esan beharra dago ikerketa xume honen parte hartzaileen kopurua apala izan dela, hain zuzen ere, 20 irakaslek hartu dute parte eta lagin urri honekin emaitzak orokortzea zaila da. Hobetzeko proposamena bezala, galdetegia HHko maisu-maistra gehiagorekin egin liteke.

Galdetegiarekin jarraituz, inkestako item gehienak itxiak izan direnez, zenbait emaitza ezin izan ditugu guk nahi bezain kualitatiboki landu. Galderak modu honetan planteatu izanak ondorio batzuk izan ditu. Besteak beste, emaitza gehienak zehatzak izan direla eta berriemaileen iritzia hainbat galderetan ezin dela jakin.

Aurrekoaren harira, ikerketa mistoa izanez, alde kuantitatibotik desiragarritasun soziala izateko arriskua dago. Hots, berriemaileek benetan pentsatzen edo uste duten

hori ez esatea eta sozialki ondo dagoena erantzutea. Horrez gain, desiragarritasun soziala nabaritzeak bere zailtasuna dauka.

Bestalde, berriemaileen ikasketak kontuan hartzen baditugu, argi ikus daiteke hezkuntza sistema honek duen hobetzekoa. Izan ere, gehiengo batek euren formakuntzan zehar pentsamendu kritikoa eta hezkidetzak landu ez dutela aipatu dute. Hausnartzekoa da, egun pil-pilean dauden eta geure bizitzan hain beharrezkoak diren bi gai hauen lanketa eza. Bai unibertsitateko irakaslegaien kasuan, bai eskoletan dagoeneko diren maisu-maistren kasuan. Hezkidetzak hezkuntza ez-sexistan oinarritzen da: haurrak berdintasunean heztea, pertsona gisa gara daitezten eta sexuagatik diskriminazioa saihesteko. Hezkidetzak guztion ahalegina izan behar du: familia, eskola, komunikabideak, etab (Aguado eta Alfonso, 2012). Beraz, prozesu horretan, hezkuntzaren lana oso garrantzitsua da, hezkuntzaren bidez txertatzen baitzaizkio gizabanakoari ohiturak, arauak eta gizartearen balioak (Muñoz, 2009). Gaitasun indibidualen garapenak eta inguruarekiko nahiz beste pertsonetikiko interakzioek pentsamendua garatzeko bidea ematen diete, pentsatzen eta ikasten irakasten diete: pentsamendu kritikoa, erabakiak hartzea, arazoak ebaztea, baliabide kognitiboak erabiltzea, eta abar (Nafarroako Foru Dekretua, 2007).

Bestalde, interesgarria izango litzateke pentsamendu kritikoa eta hezkidetzak dramatizazioaren eskutik lantzeko unitate didaktiko bat diseinatzea. Modu horretan, irakasleei gaia lantzen laguntzeko baliabideak eskaini ahalko genieke eta ,bestalde, etorkizun batean gaia lantzeko tresna bezala erabili ahalko genuke.

## **8. BALORAZIO PERTSONALA**

Gradu Amaierako Lana nire bizitzan zehar hezkuntzarekin lotutako egindako lan garrantzitsuenetako bat izan da. Izan ere, nahiz eta oso prozesu luzea eta sakona izan den, asko irakatsi dit eta orokorrean prozesu polita izan dela esan dezaket. Oso garrantzitsuak iruditzen zaizkidan bi gaien inguruko ikerketa xume bat egiteko aukera eman didana.

Hasieran oso galduta ikusi nuen neure burua, bai aukeratutako gaiarekin baita lanaren egitura eta egin beharrekoekin ere. Asko interesatzen eta motibatzen ninduen arren, nahiko gai berria zen niretzat. Gainera, nahiz eta graduan zehar beste batzuetan ikerketa lanak egin izan ditugun, lan bat bera ere ez zen izan hau bezain sakona eta hainbeste denbora eta lan eskatzen zuena. Beraz, horrelako lan bat egitea ere erronka handia izan da niretzat.



Ilido beretik, esparru teorikoa egin ahal izateko informazio guztia biltzea oso zaila izan delako. Beharrezko informazio guztia bilatzeaz gain, esparru teoriko txukuna eta kalitatezkoa lortzeko asko irakurri eta informazio esanguratsuena hautatu behar delako. Eta informazio esanguratsu hori lortzeko, irakurtzen ari naizena ulertu, irakurritakoa ondo integratu eta argi eta garbi adierazteko, izan dudana baino askoz ere denbora gehiago behar dela uste dut.

Beste kontu zailenetako bat, gehien ikasi eta gozatu dudana aldi berean, lanaren parte metodologikoa izan da. Izan ere, nire burua oso galduta ikusi dut prozesuaren zatirik handiengan, baina, aldi berean, Nafarroa osoko hainbat eskola eta irakaslerekin harremanetan jartzea oso aberasgarria izan da. Inkestan parte hartu duten irakasleak asko izan ez badira ere, oso eskertuta nago haien laguntzagatik eta niretzat hain garrantzitsua den lan honetan izan duen eraginagatik. Pertsona horiei esker, hilabete hauetan lantzen ari naizen gaiari buruzko ikuspuntu desberdinak aztertu ahal izan ditut.

Esan behar dut nire zuzendariaren esku-hartzea lanaren prozesu guztian zehar oso lagungarria eta ezinbestekoa izan dela niretzat. Izan ere, hari eta haren argibideei esker, informazioa ongi zehaztu, antolatu eta adierazi dudala uste dut. Lan honek eskatzen duen kalitatea bermatuz.

Bestalde, oso lan baliotsua eta esanguratsua izan da niretzat; bai profesionalki bai pertsonalki. Alde batetik, lanean zehar jorratutako gaien inguruko sakontze handiago bat egiteko aukera eman didalako, baita aldi berean gai horien inguruko ikerketa lan xume bat egiten ikasi egin dudalako ere. Horrez gain, gai hauen inguruko garrantziaz gehiago hausnartzeko aukera ere izan dut.

## 9. ERREFERENTZIAK

23/2007 FORU DEKRETUA, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen duena.

Honako webgune honetatik berreskuratuta:  
<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/normativa-segundo-ciclo-infantil>

237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Honako webgunetik berreskuratuta:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eli/es-pv/d/2015/12/22/237/dof/eus/html/>

Abad, J. (2011). La Ciudad Lúdica: interpretación creativa de los espacios urbanos a través del juego. *Creatividad y Sociedad*. (17). Honako webgunetik berreskuratuta: <https://documentop.com/la-ciudad-ludica-interpretacion-creativa-de-los-espacios-urbanos-a-59f6bc101723d19e4e99.html>

Agut, M. eta Hernando, C. (2015). Escuelas Reggio Emilia y los 100 lenguajes del niño: experiencia en la formación de educadores infantiles. Actas del XVIII Coloquio de Historia de la Educación: Arte, literatura y educación.

Alfonso, P. eta Aguado, J.P. (2013). Estereotipos y coeducación. *Departamento de Formación, Empleo, Desarrollo e Igualdad de Oportunidades*. Honako webgunetik berreskuratuta: [http://redongmdad.org/manuales/genero/datos/docs/1\\_ARTICULOS\\_Y\\_DOCUMENTOS\\_DE\\_REFERENCIA/D\\_EDUCACION/Estereotipos\\_y\\_Coeducacion.pdf](http://redongmdad.org/manuales/genero/datos/docs/1_ARTICULOS_Y_DOCUMENTOS_DE_REFERENCIA/D_EDUCACION/Estereotipos_y_Coeducacion.pdf)

Alfonso Santamaria, M. (2018). El pensamiento crítico en los niños. Como ayudar a los niños a pensar por sí mismos: *Guía infantil*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.guiainfantil.com/articulos/educacion/aprendizaje/el-pensamiento-critico-en-los-ninos/>

Álvarez-Uria, A., Tresserras, A., Zelaieta, E., eta Vizcarra, M. (2015). *Kubik: antzezlan bat baino gehiago: Haur Hezkuntzarako proposamen artistiko-pedagogiko bat*. Euskal Herriko Unibersitateko Argitalpen Zerbitzua.

Anguita Martínez, R. eta Torrego Egido, L. (2009). Género, educación y formación del profesorado. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado: RIFOP*. (64)

Bacon, F. (1605). *The Advancement of Learning*. Liberty Fund, Inc. 2005.

- Baker, C. 1993. *Foundations of bilingual education and bilingualism*. Multilingual Matters.
- Barberá E. (1998). *Psicología del género*. Ariel Psicología.
- Benítez, J. L. eta Fernández, M. (2010). Desarrollo afectivo, emocional y de la personalidad. A. Muñoz-en, *Psicología del desarrollo en la educación infantil* (121-140. or.).
- Bermejo Herran, M. (2020). *Irakasleen genero ikuspegia etorkizuneko bidea*. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. EHU
- Butler, J. (2001). *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*. Paidós.
- Cabalellas, I. eta Eslava, C. (2005). *Territorios de la Infancia*. Graó.
- Cemades, I. (2008). Desarrollo de la creatividad en Educación Infantil. Perspectiva constructivista. *Creatividad y sociedad*, (12). Honako webgunetik berreskuratuta: <http://creatividadysociedad.com/numero-12>
- Chrobak, R. (2017). *El aprendizaje significativo para fomentar el pensamiento crítico*. Archivos de Ciencias de la Educación
- De Miguel, J., Melendo, A. M., Fernández, P., eta Razquin, M. (2016). *Espíritu crítico y Educación*. Ed. Ceasga.
- Dewey, J. (1910) *How we think*. D.C. Heath & Co.
- Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. 2000). *La construcción del género desde el ámbito educativo: una estrategia preventiva*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto\\_nahiko\\_formation/es\\_def/adjuntos/2006.02.09.angeles.espinosa.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/proyecto_nahiko_formation/es_def/adjuntos/2006.02.09.angeles.espinosa.pdf)
- Estrella, S. (2013) *La importancia del pensamiento*: <https://estrellacamarsandra.blogspot.com/2013/05/la-importancia-delpensamiento.html>
- Fernandez, M. eta Feliu Torruella, M. (2017). *Reggio Emilia: An Essential Tool To Develop Critical Thinking in Early Childhood*. *Journal of new approaches in educational Research*
- Franco, C. (2006). Relación entre las variables autoconcepto y creatividad en una muestra de alumnos de educación infantil. *Revista Electrónica de Investigación Educativa*, 8 (2): <https://redie.uabc.mx/redie/article/view/120>

- García Leiva, P. (2005). *Identidad de género: Modelos explicativos*. Malagako Unibertsitatea.
- Giroux Henry (2006). La escuela y la lucha por la ciudadanía (M. Mur Ubasart, Trad.). Siglo XXI (Trabajo original publicado en 1988).
- Goñi, E., Donaire-Hidalgo, I., eta Alvarez-Uria, A. (2018). Gorputza eta identitatearen eraikuntza Haur Hezkuntzako hezitzaileen ikuspegitik. *Tantak*, 30(1), 57-85
- Guilford, J. P. (1983). *Creatividad y educación*. Paidós.
- Guilford, J. (1962). Factors that aid and hinder creativity. *Teachers College Records* 63: 380-392.
- Gutierrez, R. (2002). *Educación Artística y Desarrollo Creativo. Arte, Individuo y Sociedad*, Anejo I, 279-288
- Herranz Aragoneses, A. (2014). *La expresión corporal en Educación Infantil*. E.U. Magisterio/Campus María Zambrano.
- Jimenez, M.E. (2013). El placer y el gusto de la curiosidad infantil como recurso para la iniciación a la investigación científica. Universidad Nacional de Trujillo: Publicaciones Científicas:  
<http://www.revistas.unitru.edu.pe/index.php/PET/article/download/401/339>
- Kant, I. (1784). *¿Qué es la Ilustración?* Alianza, 2009, 81-93 or.
- Kohlberg, L. (1966). *A cognitive developmental analysis of children's sex role concepts and attitudes*. En E. E. Maccoby (Eds.), *The development of sex differences*. Stanford University Press
- Lasagabaster, D. (2015). Pentsamendu sortzailea hizkuntzen irakaskuntzan. *Euskalduntze- alfabetatzearen aldizkaria*, (39), 69-79. Honako webgunetik berreskuratuta:  
[http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod\\_habecms/doc\\_attachment\\_eu/627/HIZPIDE%2039%20ARTIKULU%205.pdf](http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod_habecms/doc_attachment_eu/627/HIZPIDE%2039%20ARTIKULU%205.pdf)
- López de Arana, E. (2009). Jakingarriak: Informazio eta komunikazio teknologia berriak hezkuntzan (I). *MU aldizkaria*, (65). Honako webgune honetatik berreskuratua:  
<http://hdl.handle.net/20.500.11984/1549>

- López, F. (1988). *Adquisición y desarrollo de la identidad sexual y de género* En J. Fernández (coor). Nuevas perspectivas en el desarrollo del sexo y del género. Pirámide.
- Malaguzzi, L. (2005). *Los cien lenguajes de la infancia*. Asociación de Maestros Rosa Sensat.
- Márquez, M. (2005). *El poder en el aula de la escuela básica ¿Cómo reconstruir la interacción docente-alumno?* [Resumen en línea]. Trabajo de grado de especialista no publicado. Universidad Pedagógica Experimental Libertador, Instituto Pedagógico Rural El Mácaro. Honako webgune honetatik berreskuratua: [www.geocities.com/CapeCanaveral/Hall/4609/poder.html](http://www.geocities.com/CapeCanaveral/Hall/4609/poder.html)
- Mora, F. (2009). *Cómo funciona el cerebro*. Alianza.
- Moreno Candell, F. (2018). Educación en diversidad sexual a través de las Artes Plásticas. Práctica en la Escuela de Arte y Superior Fernando Estévez de Tenerife. *Pulso aldizkaria*, (41), 85-103. Honako webgunetik berreskuratuta: <https://revistas.cardenalcisneros.es/index.php/PULSO/article/view/298/262>
- Muñoz, P. (2009). Mujeres españolas en las artes plásticas. *Arte, individuo y sociedad*, 21.
- Ortiz Fernandez, H. (2015). *Irteerak ikaskuntza baliabide bezala*. Haur Hezkuntzako gradua. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola
- Paul, R. eta Elder, L. (2003). *La mini guía para el Pensamiento crítico: conceptos y herramientas*. Fundación para el pensamiento crítico.
- Piaget, J. (1966). *The moral judgement of the child*. Free Press
- Pozzi, J.P. eta Barougier, P. (2010). *Sólo es el principio*. [Dokumentala] Ciel de Paris Produksioak
- Real Academia Española. (2019). *Diccionario de la lengua española* (22.ed.). Honako webgune honetatik berreskuratua: <http://www.rae.es/rae.html>
- Rocha, T.E. (2009). Desarrollo de la identidad de género desde una perspectiva psico-socio-cultural: un recorrido conceptual. *Interamerican Journal of Psycgology*, 41(2), 250-259.

- Roldan, M.J. (2016). *Disciplina Positiva: La importancia de la autonomía de los niños. Etapa infantil*. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.etapainfantil.com/disciplina-positiva-importancia-autonomia-ninos>
- Roure Salas, Y. (2012). *Propuesta coeducativa para desactivar los estereotipos de género en Educación Primaria*. UNIR. Honako webgunetik berreskuratuta: <https://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/219/TFG%20Roure%20Salas.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Ruiz, J.C. (2018). *El arte de pensar*. Almunzara.
- Ruiz, J.C. (2019). *El arte de pensar para niños. La generación que cambiará el mundo*. Almunzara.
- Shor, I. (1992). *Empowering education: critical teaching for social change*. The University of Chicago Press.
- Santiago, K., Jimenez, O., eta Lukas, J.F. (2018). Metodo mistoak Hezkuntza-ikerkuntzan. *Tantak*. 30 (1), 87-111. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://ojs.ehu.eus/index.php/Tantak/article/view/19827>
- SKOLAE (2017-2021). *Berdin bidean. Hezkidetza programa*. Nafarroako Gobernua. Honako webgunetik berreskuratuta: <https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/1325202/Libro+SKOLAE+CAST+web.pdf/1ba58d8b-d13b-4f2d-0fc1-9c5e99d5946e>
- Stipek, D., Gralinski, H., eta Kopp, C. (1990). Self-concept development in the toddler years. *Developmental Psychology*, 26, 972-977
- Teruel, T. M. (2016). *Psikopedagogía de la Dramatización*. Webgune honetatik berreskuratua: [http://www.postgradoteatroeducacion.com/wpcontent/uploads/2016/11/Psicopedagog%C3%ADa\\_Drama\\_MTA\\_2015\\_2016.pdf](http://www.postgradoteatroeducacion.com/wpcontent/uploads/2016/11/Psicopedagog%C3%ADa_Drama_MTA_2015_2016.pdf)
- Torres, A. (2009). *La educación para el empoderamiento y sus desafíos*. *Revista Universitaria de Investigación*. (1), 89-108
- Ungerer, T. (2016). *Así es la vida. Respuestas filosóficas y divertidas a preguntas de niñas y niños*. Blackie Books.
- Valdivia, R. I. L. (2010). *Las metodologías activas y el foro presencial: su contribución al desarrollo del pensamiento crítico/Active learning methodologies and synchronous*

forum: its contribution to the development of critical thinking. *Actualidades investigativas en educación*, 10(1).

Vygotsky, L. (1993). *Pensamiento y Lenguaje. Teoría del desarrollo cultural de las funciones psíquicas* (Rotger, M. Trad.) Ediciones Librerías Fausto.

Zapata Maya, Y.P. (2010). *La formación del pensamiento crítico: entre Lipman y Vygotski*. Pontificia Universidad Javierina. Facultad de Filosofía

Zúñiga, L. (2014). El pensamiento crítico en la teoría educativa contemporánea. *Actualidades investigativas en educación*. 14 (2).


## ERANSKINAK

### ERANSKINAK 1: PROPOSATUTAKO GALDETEGIA

[https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdX9YochH165VwG3UuJpJ8G\\_zxy9n44RMDVID2mHof\\_qIQXFuw/viewform?usp=sf\\_link](https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdX9YochH165VwG3UuJpJ8G_zxy9n44RMDVID2mHof_qIQXFuw/viewform?usp=sf_link)


### ERANSKINAK 2: BERRIEMAILEEN GENEROAREN GRAFIKOA

Generoa  
20 respuestas




### ERANSKINAK 3: BERRIEMAILEEN ADINAREN GRAFIKOA

Adina  
20 respuestas



### ERANSKINAK 4: BERRIEMAILEEN HEZKUNTZA ARLOKO ESPERIENTZIAREN GRAFIKOA

Hezkuntza arloan zenbat urteko esperientzia  
20 respuestas





## ERANSKINAK 5: BERRIEMAILEEN IKASKETEN GRAFIKOA

Ikasketak  
20 respuestas



## ERANSKINAK 6: PENTSAMENDU KRITIKOAREN DEFINIZIOAREN ERANTZUNAK

Gure egunerokoan gainjarriak dauden ikuspegiak zalantzan jarri eta beste ikuspegi batetik begiratzeko gaitasuna dela uste dut.

Kritikoki pentsatzen ikastea.

Gaitasuna zalantzan jartzeko baietapen ezberdinak.

Zuk dituzun ezagutzetatik abiatuta, "gai" baten inguruan zure konklusioetara iristea, inoren ideien menpe egon gabe

Eguneroko bizitzan egiazkotzat hartzen diren baieztapenak zalantzan jartzea izango litzateke.

Bizitzan normaltzat ematen diren egiak zalantzan jartzea.

Nork bere hausnarketa eginaren ondorioz gai baten aurrean jarrera, pentsaera edota iritzi pertsonal bat izatea

Sinesmenak zalantzan jartzeko gaitasuna

Zerbait horrela den eta Bere zergatia aztertzea, ez horrela dela esan digutelako horrela dela onartzea.

Jasotako i formazioaren inguruan galderak egitea, kontrastatzea, eztabaidatzea, etab.

Jasotako informazioa egi borobiltzat ez hartzea.

Norbanakoak gauzak ikusteko, sentitzeko, hautemateko... duen moduaren arabera, bere pentsamendu propio eta subjektiboa garatzeko duen gaitasuna; askotan gizarteagatik baldintzatuta dagoena.

Gauzak zergatik gertatzen diren geure buruari galdetzea, eta hauen arrazoia aztertzea. Egi bezala uste ditugun gauzak, zalantzan jartzeko pentsamendu mota

Zerbaiten inguruan hausnarketa esanguratsua egitea

Umeei beren kabuz pentsatzeko eta ingurukoak hausnartzeko gaitasuna.

Gizarteak baimentzen duena edo automatikoki onartzen ohi dena zalantzan jartzea.

Jasotzen ditugun ezagutzak modu kritikoan aztertzea, hau da, ezagutzak kolokan jartzea eta haiek zalantzan jartzea

Prozesu bat da non helburua ezagutzak nola antolatzen diren aztertzea, ulertzea eta ebaluatzea da.

Pentsatzeko gaitasuna izatea, hau da, bizitzan gertatzen direnen gauzei buruz hausnarketa egiteko gaitasuna, honen alde onak eta txarrak baloratzeko

## ERANSKINAK 7: PENTSAMENDU KRITIKOAREN GARRANTZIAREN ERANTZUNAK

Ezinbestekoa ikusten dut gure ikasleei mundua beste betaurreko batzuekin ikusteko aukera eman behar diegulako. Egunerokoaren edozein momentutan landu daiteke eta horretarako haiek pentsatzen utzi behar ditugu. Irakasleak munduaren inguruan duen ikuspegia alde batera utzi behar du eta ikasleei galderak egiten utzi behar die.

Bai, behar den une guztietan edo modu sistematizatu batean.

Bai. Pentsamendu kritikoa izatea prozesu bag da, HH oso garrantzitsua ikusten dut irakastea galderak egitea (besteei, bere buruari...), eta beraien ustea partekatzea.

Bai, noski! Uneoro, edozein gai berri azaltzerakoan, gai baten inguruan zalantzak daudenean... Hurrei galderak eginez, iturri desberdinetatik informazioa hartzeko aukera eskainiz, eta azkenik, beraien iritzia azaldu dezaten bultzatu araziz

Bai txikitatik lantzea garrantzitsua ikusten dut. Egunerokotasunean gertatzen ahal diren egoera desberdinetan, ipuinekin...

Bai, garrantzitsua da. Egunean zehar gelan ematen diren egoera ezberdinetan. Korroan, erabakiak hartzerailoan, ipuinekin...

Beti, hurrei bere iritzi pertsonala izatea baimenduz eta sustatuz

Bai. Hasieratik aukeratzeko aukera ematen, beren iritzia ontzat hartzen.

Gutziz beharrezkoa. Erantzuna bilatzen uzten, esperimentatzen eta eztabaidatzen

Bai. Etengabe landu beharreko zerbait dela uste dut. Nola galderaren inguruan zalantza gehio sortzen zaizkit, baina uste dut hurrei erantzuna zuzenean eman aurretik, hauei pentsatu araziz, haiek ondorioetara heldu daitezten.

Haur hezkuntza osoan zehar hau garatzearen garrantzia argi dago. Modu globalean eta zeharka lantzea iruditzen zait egokiena, eguneroko uneetan hurrei pentsamendua garatzeko aukera eskainiz, ikerketa sustatuz, hipotesiak botatzeko uneak eskainiz, esperimentatuz...

Bai, honen bidez hurrek gauzak zergatik gertatzen diren ikasten joango direlako. Hau lantzeko, edozer gauza gertatzen denean honen arrazoia bilatzea izan liteke irtenbide bat eta dituzten zalantza ezberdinak haien artean argitzen saiatzea.

Bai Esperimentazioaren bidez. Batzutan HHko ikasleak beraien pentsamendua egi borobila bezala jotzen dite eta hori zalantzan jartzea beharrezkoa ikusten dut

Bai, edozein egoeratan.

Bai beti

Bai, uneoro.

Arlo guztietan

Bai, oso. Haur hezkuntzatik landu behar dela uste dut.

Bai, nire ustez ikasgai guztietan landu behar da. Adibidez, gertakizun desberdinak aurkezten eta hurrek zer egingo zutenaren ikuspuntua adieraztea